

Leioako zenbait erakundek urrian hiru sariketa antolatuko dituzte: argazkiena, film laburrena eta Pop-rock lehiaketaren kartelarena. ►5



hirulka



102. zenbakia

2017ko
Irailaren 14tik
irailaren 20ra arte



Monica Allende da
Getxophotoren
komisarioa aurten;
globalizazioaren
ondorioez dihardute
jaialdiko lanek. ► **18**

AGENDA GETXO

Hitzak eta dantzak

Algortako Bertsolari Eskolak Hitzaren Dantza jaialdia antolatuko du, hirugarrenez, domeka honetan, irailaren 17an; Getxo udalerriko hainbat elkar-terren laguntza izango du ALBEK, egun horretan. Bertsoak, kantzak eta dantzak uztartuko dituzte. ►17

HERRIZ HERRI **URIBE KOSTA**

Udako azken jaiak, gozagai

Urduliz, Lutzana eta Ondiz
jaietan murgilduko dira aste-
akabu honetan. Gastronomia-
ekitaldiak, umeentzako jolasak
eta kontzertuak ezinbesteko
osagaiak izango dira. ▶ 4, 5, 7

Ikasturte
berrirako eskaintza ▶ 9-16



Zure seme edo alabaren

Betaalrekening doan

Telletxe kalea, 7 • GETXO - Kale Nagusia, 10 • AREETA
gozatu plan honetaz Bilboko gure edozein zentrotan

edo aurkitu gertuen duzun zentroa www.generaloptica.es helbidean



General Optica

Walaupun tidak bermaksud untuk menggantikan buku-buku yang sudah ada, buku ini diharapkan dapat memberikan informasi yang lebih banyak kepada para pembaca yang berkeinginan untuk mengetahui lebih lanjut mengenai dunia kesehatan masyarakat.



Txoritokitik

IÑAKI
ZARRAGOITIA
Getxoko alkate ohia

Eta urriaren batetik aurrera, gero zer?

Gun hauetan Katalunian bere etorkizuna erabakitzeke ematen ari diren pausoak ari gara gertutik bizi izaten, baina guk eta beraiek ere zalantza asko ditugu. Zer gertatuko da urriaren 1a baino lehenago, zer ondoren? Nik eszenatoki hauek aurreikusten ditut:

1.-Gobernu espainiarrak erreferenduma ez egitea lortzen badu, oraindik bi bide izango lukete: bata independentzia Legebiltzarrak berak aldarrikatzea edo, bestea, hauteskunde berrietara joatea, hurrengo Legebiltzarrak independentzia aldarrikatuko duela argi adieraziz. Lehen aukera ziurrenik baztertu egingo dute, azken hauteskundeetan independentziaren aldekoek Legebiltzarraren gehiengo absolutua lortu baldin bazuten ere, ez zuten boto kopuruarena lortu eta. Eta bigarren aukera etorkizunean baliagarria izateko hauteskunde berri horietan aipatutako bi gehiengo horiek lortu beharko lituzkete, parlamentari eta boto kopuruen gehiengoak, alegia.

2.-Erreferenduma egitea da bigarren eszenatokia. Boto kopuru handi bat, ia ehuneko ehuna, independentziaren aldekoa izango dela, aurka daudenek botorik ez ematea eskatzen dutelako. Baina partaidetzaren erronka irabazi behar dute. Izan ere, erreferendumaren emaitzari nazioartean zilegitasuna eman diezaioten, partaidetza, behintzat, %50ekoa izan behar da. Erronka ez da batere erraza. Hala ere, hori lortuz gero, oraindik Espainiako Gobernuaren eta PP, PSOE eta C's-en erasoei erantzuten asmatu beharko dute.

Borroka eta eraso handiak izaten jarraituko dute, baina ez dituzte menperatuko baldin eta lortu duten alderdien arteko eta alderdi eta gizarte zibilaren arteko batasun hori apurtzen ez bada.

Zorte on Katalunia! ◀

Getxo

Algortako erdigunea, berrantolatze bidean

Jarduketa eremu guztian zoladurak, galtzadako akaberak, espaloiak eta hiri-altzariak berrituko dira, besteak beste.

Algortako Irisgarritasuna, Trafikoa eta Aparkamendua Hobetzeko proiektuaren lehenengo fasean aurreikusitako lanak hasi ditu Getxoko Udalak. Egitasmoaren helburua da Algortako Etorbidea eta Mariandresena kaleen irisgarritasuna hobetzea; Euskal Herria kaleko tarte bat (Mariandresena eta Ameztia artekoa) oinezkoentzat egitea; eta 243 leku izango dituen lurrazpiko aparkaleku bat eraikitzea Manuel Gainza parkean, besteak beste. Lan horien aurrekontua 7 milioi eurokoa da.

Lehenengo fase honetan Algortako Etorbidea kalea urbanizatuko dute berriro, Andrés Cortina eta Torreñe kaleen artean; lanok hilabetea iraungo dutela aurreikusi dute. Eginbeharrek iraungo duten bitartean, ibilgailuek



Daborduko, laneko etxolak ipini dituzte Juan Bautista Zabala kalean.

errei bakarretik joan beharko dute tarte horretan, eta oinezkoak ezkerreko aldean dagoen espaloitik edo Basagoiti etorbideetik ibili ahal izango dira. Lanak ezkerreko aldean egingo dituztenean, ibilgailuek eta oinezkoek eskumako aldetik ibili beharko dute.

Ibilgailuen zirkulazioa bide bakanrekoa izatea aurreikusten du jarduketak, eta, horrez gainera, espalo berriak (irisgarritasunaren araudia beteko dutenak) zein ilarako aparkamendu-tarteak egokitzea, kalearen zabalera uzten duen lekuetan. ◀

Alokatzeko 136 BOE sustatuko ditu Udalak, Iturribarrin

Getxoko Udalak 1.311.000 euroko kreditu gehigarria onetsi du Algortako Iturribarrin aldean alokatzeko babes ofizialeko 136 etxebizitza (BOE) sustatzeko. Horretarako, Visesa sozietate publikoagaz hitzarmena sinatu du; eta aurten izapidetuko dute. Hala, erregimen berezian alokatzeko 88 BOE (gizarte-laguntzakoak) eraikiko dituzte, eta erregimen orokorreko 48. Joan den uztaileko osoko bilkuran onetsi zuten erabakia, talde guztien babesagaz, GUK taldearenagaz izan ezik, «ingurumena eta haren arrisku-eremuak barne hartzen eta errespetatzen dituen hirigintza-politikaren alde egiten» dutela argudiatuz. Ostera, Gober-



nu-taldeak nabarmendu zuen Eusko Jaurlaritzak zehazten dituela zein diren derrigorrez bete beharreko betekizunak uholdeak gerta daitezkeen gunetan ez eraikitzeke. ◀

info+: hiruka.eus/getxo

Iraileko egitarauari heldu dio Getxoko Ingurumen Aretoak

Auztuko geldialdiaren ostean, Iraileko egitaraua prestatu du Larrañazubir dagoen Getxoko Ingurumen Aretoak. Hala, hilaren akabura bitartean, familien arteko jolasak, tailerrak eta erakusketak egongo dira, besteak beste. Saio denak doakoak izango dira; hala ere, horietako batzuetan alde aurretik izena ematea beharrezkoa da, parte hartu ahal izateko. Berbarako erabilitako komikiakaz diru-zorroak egiteko ikastaroa egingo dute zapatuan, hilaren 16an; hurrengo egunean, berriz, *geocaching* saioa eta familia arteko ginkana autogidatua egingo dute. Saio horiek 10:00etatik 14:00etara izango dira. ◀



Getxo



Argazki-bilduma eta info+: hiruka.eus/getxo.

Errefuxiatuak babestu guran

Errefuxiatuen aldeko ekimena egin zuen Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak Ereaga hondartzan, joan den zapatuan, hilaren 9an. 2016an euren herrialdeak utzi behar izan zituzten 5.000 pertsona baino gehiago Mediterraneo itsasoan ito zirela salatu zuten, «aurreko urtean baino %25 gehiago!». «Itsasoak dakarrena» goiburuagaz, bizi hobe baten bila euren herrialdeetatik ihes egiten duten «persona asko» bidean hiltzen direla irudikatu gura izan zuten plataformakoek. Errefuxiatuek «etsi-etsian»

egiten dituzten ihesaldi horiek «logika guztia» daukatela ondorioztatu zuten bertaratutakoek: «bizitzak heriotzarekin hainbesteko lotura duenean, berriro saiatzea ez da hainbeste kostatzen». Gainera, errefuxiatuen arazoak «gurekin zerikusi handia» daukala akordura ekarri zuten: «Espainiako Gobernuak Santurtziko portua erabiltzen du Saudi Arabiari, munduko diktadurarik krudelenetakoari, armak saltzeko». Modu berean, hori dena Europar Parlamentuak emandako irizpidearen kontra doala deitoratu zuten. ◀

Herri-galdeketa aldeko mosaikoa egingo dute itsasoan

Datorren azaroaren 5ean egingo dute erabakitze eskubidearen aldeko herri-galdeketa Getxon, baita Berangon, Erandion eta Leioan ere. Orduan herritarrek erantzun beharko duten galdera erabakitze, Getxo-ko Gure Esku Dagok herri-bilera egin zuen joan den zapatuan, hilaren 9an. Ostera, oraindino ez dute publiko egin

zein izango den itauna, laster jakinaraziko dutela esan duten arren.

Bestalde, herri-galdeketa aldeko mobilizazio berezia egingo dute irailaren 30ean, zapatuan, Algortako Portu Zaharrean; ordurako eta itsasoan mosaiko bat osatzeko, 300 surfari inguru beharko dituztela iragarri dute. Ekitaldia 12:00etan izango da. ◀

Euskal Herria Eguneko bazkariko tiketak eros daitezke

Baigorriren lekukoa hartu eta Algortan egingo dute aurten Euskal Herria Eguna, hilaren 23an, zapatuan. Euskal Herriko pertsona denak bertaratzerantz deitu dituzte antolatzaileek: «Zuberoatik, Arabatik, Nafarroatik, Lapurditik, Gipuzkoatik, Behe Nafarroatik edo Bizkaitik, zu ere gonbidatuta zaude». Egitaraua goizeko 11:00etan abiaraziko dute, Algortako Portu Zaharrean. Askotariko ekitaldiak egongo dira, berbarako dantza-plaza, elektrotxaranga eta bazkaria; horretan parte hartzeko txartelak Baster eta Hator tarteretan saltzen dituzte, 12 euroan. ◀

Ibarbengoako «parkinga gelditzera» deitu dute Tosukoek

Tosu Betirako plataformako kideek ohartarazi dutenez, «laster» hasiko dituzte Ibarbengoako aparkalekua egiteko obrak. Hori salatzeko asmoz, Algortako Telletxe kaleko errepideko errailetak bat etenarazi zuten, irailaren 1ean; bi ordu eta erdiz, hormigoiz betetako bidoi batean besoa sartuta eduki zuen gazte batek, dozenaka lagunek babesa adierazten zioten bitartean. Suhiltzaileek askatu zuten ekintzailea, eta ertzainek hura identifikatu zuten. Hala ere, aparkalekuaren kontrako borroka ez dutela amaitu jakinarazi dute, izan ere, hirugarren kanpaldia antolatu dute Tosu landan. Abuztuaren 31n ekin zioten erresistentziari berriro, eta, behintzat, irailaren 17ra arteko egitaraua prestatu dute. Hala, egunez egun, askotariko jarduerak antolatu dituzte Tosu Betirako plataformakoek, esaterako tailerrak, auzolanak eta berbaldiak. Domeka honetan bilera orokorra egingo dute, hilaren 17an. ◀



Sarritik Borobiara

PAUL
BILBAO SARRIA
Kontseiluko Idazkari Nagusia

Hizkuntza ere bozketarako arrazoi

Ariketa ximplea izan beharko lukeena erabat gaiztotzen ari dira Espainiako botere publikoak. Finean, erabakitze eskubidea edozein herriri aitortu beharko litzaiokeen oinarritzko kontua bada ere, batzuek ez dute hori ulertzen eta ikusten ari gara edozer egiteko prest daudela.

Katalanaren aldeko herri mugimendua ere oso aktibo dago erreferendumaren karira. Are gehiago, aldeko bozka eskatzen ari da, hizkuntzaren normalizazioarako nahitaezkoa ikusten dutelako Estatuaren beharra.

Sarri begiratu diogu katalanaren egoerari Principat osatzen duten lau lurraldeetan. Askotan izan ditugu eredugarri bertako agintariek hizkuntza-politikan hartutako erabakiak, besteak beste, hezkuntza-sisteman murgiltze eredu orokortua, katalanaren nahitaezko ezagutza administrazio publikoan lan egiteko eta abar.

Halere, oraindik ez dute hizkuntzaren normalizazio osoa lortu. Tokiko erakundeak haien esku dauden guztia egin badute ere, Estatuak ukatu egiten dio katalanari Europako Batasuneko hizkuntza izateko aukera, Estatuak gaztelaniaren erabilera derrigortzen duten bostehun arau baino gehiago onartu ditu, Estatuaren eskumen diren administrazioetan, epaitegiak kasu, askotan ezinezkoa da katalana erabiltzea... Hartara Estatuak hizkuntza gutxiagotzen jarraitzen du. Egia da, bai, katalana ez dela gutxiengo hizkuntza Katalunian, bai, ordea, hizkuntza gutxitua.

Horrexegatik katalanaren aldeko gizarte eragileek argi dute Estatu propioa behar dutela. Azken hamarkadek erakutsi dute Espainiako botere publikoek oztopoak besterik ez dizkiola jartzen haien hizkuntzaren normalizazio-prozesuari, eta beraz, alde egin behar dutela eskuhartzerik gabeko hizkuntza-politika burujabea abian jartzeko. Animo, lagunok! ◀

aldai
Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

JUAN MARI
Harategia · Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu
artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

GAVRKO
1967

50. URTEURRENA
GIZONENTZAKO
MODA

ZABALA, 9. ALGORTA
94 460 70 84

Erandio

Udagoienez, hamaika ikastaro aukeran

Ikasturtea martxan ipintzeko prest daude Erandioko elkarteak eta erakundeak. Erandioztarrei eskaintza zabala proposatu diete: artzain izatea, Angolako dantzak...



Txikienek xakea ere izango dute aukeran. CC-BY-NC-ND TIM S.

Erandioko Emakumeen Elkar-teak egin ditu proposamen gehien ikasturtea hasteko. Andreen elkarteak 17 tailerren eta ikastaroren izen-ematea zabaldu du irailaren 21era arte. Inskripzioa astelehenetik eguenera bitartean egin daiteke, 18:00etatik eta 20:00etara, elkartearen bulegoan, San Agustin plazako 1. zenbakian. Bestalde, Erandioko Udal Gazteria Sailak hamar ikastaro edo tailer antolatu ditu, abendura bitartekoak. Izena emateko epe batzuk irailaren 15ean amaituko dira; beste batzuk, datozen egunetan, irailaren 27ra bitartean. Erandioko Helduen Hezkuntza zentroak ere iragarri du ikasturte berriko eskaintza. Matrikulazioak barikura arte egin daitezke. Bere aldetik, Dance GM elkarteak zenbait jarduera egingo ditu egunotan Astrabuduan, irailaren 17tik 22ra. Gainera, hilaren 26ra arte matrikulazioa zabalik izango du. Proposamen bitxiena, baina, Lutxanatik dator; barikura arte eska daiteke egun batez artzain izateko txangoan parte hartzeko aukera. ◀

info+: Hiruka.eus/Erandio

Ikastaro batzuk

Irailaren 15era arte

Artzain izatea. Lutxanako Kultur Elkartearen txangoa Abadiñora, urriaren 1ean. 0 eta 15 euro bitartean. Izen-ematea: 669 335 162 (18:00-21:00).

DBHko Graduatuko Titulu Ofiziala. Erandioko Helduen Hezkuntza zentroaren ikastaroa. Informazio gehiago: 944 673 504 eta 679 480 970.

Irailaren 21era arte

Berdintasunerako gizonetako sukaldaritza-ikastaroa. Azaroaren 2an hasi eta 28an amaituko da Erandioko Emakumeen Elkarteak antolatutako tailerra. Bekoa ikastetxean emango dute. Leku-kopurua mugatua da. Informazio gehiago: mujereserandio@hotmail.com posta elektronikora idatziz, edo elkartearen egoitzara bertaratzuz.

Irailaren 26ra arte

Kizomba. Dance GM elkarteak eskainiko du Angolako dantza hori ikasteko aukera, egunetan, 21:00etan. Informazio gehiago: 679 480 970.

Irailaren 27ra arte

Munduko sukaldaritza: Mexiko eta Peru. Erandioko Udal Gazteria Sailaren tailerra. Bekoa ikastetxean egingo dute, urriaren 11tik azaroaren 15era arte.

Lutxanako jaiak, aste-akabu honetan

Bariku honetan hasi eta domekara arte, Erandioko Lutxana auzoan jaiak izango dira. Ohi legez, txupinagaz abiaraziko dira festak.

Suziria botatzeagaz batera agertuko da San Lutxanin, jaietako maskota arrantzalea. Barikuan, pailazoak, txorizo-jana eta mus-txapelketa izango dira; eta bertoko musika-taldeak igoko dira oholtzara. Zapatuan eta domekan, sabela betetzeko zein dantzan jarduteko aukera gehiago izango dira. ◀

Ekitaldi batzuk

Irailak 15, barikua

19:30 Txupina eta San Lutxaninen agertzea.

22:00 Bertoko musika-taldeen kontzertua: Bajo Axpe eta Ectopasmas.

Irailak 16, zapatua

12:00 Olgetan Jolas, familien arteko jokoak.

12:00 Tortilla-txapelketa.

15:00 Herri-bazkaria.

Irailak 17, domeka

10:00 III. Indaba-txapelketa.

15:00 Herri-bazkaria.

18:00-20:00 Xaiborren musika-emanaldia.

Aurrekontu parte-hartzaileak, martxan

Aurten ere, Erandioko Udalak zenbait ekimen antolatu ditu erandioztarren iritzia ezagutzeko, 2018ko udal-aurrekontuen inguruan. Hala, partaidetza-prozesu bati ekin dio, datoren ekitaldiko herritarren proposamenak jakiteko. Edozein erandioztarrak aukera izango du bere iradokizunak helarazteko, datorren urriaren 1era arte. Horretarako, bide bi prestatu ditu Udal Gobernuak. Alde batetik, postontzi denetan banatu zen iraileko udal-alizkarian zetorren galdetgia bete eta kanpainako postontziren batean sar daiteke; hilaren 17ra arte postontziak Altzagan izango dira; bestetik, udal-webgunearen bitartez galdetgia bisita daiteke eta online bete. ◀

Ikasturtea txarto hasi dute Bekoako kideek

Altzaga ikastolako hezkuntza-komunitateak ikasturtea hasi zuen pasa den irailaren 7an. Bekoa erai-kinean amaitu barik zeuden, oraindino, Eusko Jaurlaritzak abiarazitako lanak, zentroan hiru gela gehiago ipintzeko. Hala, zenbait gurasok salatu zuen umeak arrisku-egoeran daudela. Egoera horren aurrean, Mikel Filgueiras Hezkuntza zinegotzi jeltzalea zuzendaritzagaz batu zen eta zentroko zenbait guraso eta langilegaz. Udalak bertako zaintza indartu egin du, eskolazain gehiago ipiniz eta Udaltzaingoaren bidez. Gainera, egoera bideratzeko ahaleginean dabil Jaurlaritzagaz; Ganemosek eta EH Bilduk ere zenbait proposamen egin dituzte. ◀

BEREZI
Haur moda eta lentzeria
(Algorta)

telletas 15 - 06130
944004883
beresimoda@gmail.com
@beresimoda

LUBERRI
OBRAK ETA ZERBITZUAK

- Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea
- Inaustetak
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Axpe ibaiertza 28A behe, B12 Lokala (ERANDIO)
629 41 18 38 • 94 467 17 13
luberri@luberri.biz
www.luberri.biz

txakoli mota ganeTx.
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34
(Akarlonda parkea) Golerri-Erandio
94 467 00 07 • www.txakolimotagane.com

prentsa • aldizkariak

ITXASGANE
Getxoko kirol portua • 94 491 53 21

TXIBERRI
EDANTOKIA

FRONTOI PARTIKULARRA

AITA GOTZON 4, URDULIZ
94 676 07 15

Leioa



Azaroaren 24an emango dituzte argazkilaritza-lehiaketaren sariak. © LEIOAKO UDALA

Lehiaketak, leioaztarrentzat

Udal-erakundeek urrian hiru lehiaketa antolatuko dituzte: argazkiena, film laburrena eta kartelena.

Hiru lehiaketetatik gazteena da Leioako Pop-rock Lehiaketaren berri emango duen kartela aukeratzeko sariaketa. Lehiaketa hori bederatzigarren urtez martxan ipini dute Aterpe Gaztegunek, Kultur Leioak eta Leioako Udalak. Lanak urriaren 20ra arte aurkeztu ahal izango dira Aterpen, Aldapabarrena kaleko 2. zenbakian. Bertan parte har dezakete 14 eta 35 urte bitarteko pertsonak.

Epaimahaiak bost kartel aukeratu dituzte, finalistak, azaroaren 6an; ikusleek euren botoak emateko aukera izango dute data horretatik aurrera, azaroaren 19ra arte. Jendeak gogokoen dituen hiru kartelei botoa

eman ahal izango die (3 puntu, 2 eta 1), Kultur Leioako webgunearen bitartez. Epaimahaiaren eta ikusleen boto gehien jaso duena izango da kartel irabazlea. Sari-banaketa azaroaren 24an izango da, Kultur Leioan; lehiaketak 600 euroko sari bakarra izango du.

Beste lehiaketa biak

Modu berean, argazki-lehiaketaren 31. edizioan lanak aurkezteko epea zabalik du Kultur Leioak. Gura duten pertsonak parte har dezakete sariaketa horretan, «betiere, ezarritako modalitateen barruan». Hiru kategorია eta bost sari egongo dira, denera. Irudiak urriaren 23ra arte aurkez daitezke.

Azkenik, film-laburren lehiaketan parte hartzeko eta DVDa emateko epea urriaren 16an amaituko da. Horretan emango dituzte sari handienak: mila euro jasoko dituzte euskarazko eta gaztelaniazko lanik onenek. ◀

info+: Hiruka.eus/Leioa / Kulturleioa.com

Ondizko jaien erreplikapena, gozagai

Gastronomia-lehiaketa eta erromeria izango dira osagai nagusiak, domeka honetan, Ondizko auzoko basilizaren inguruan.

Pasa den irailaren 1ean hasi ziren Ondizko festak, suziria botatzean. Ordutik hona, jaie-tako ekimen zaparradaren barruan, Ondizko emakumezkoen X. eta Bizkaiko 57. auresku-txapelketak jokatzen zituzten, domekan. Emakumezkoetan, Haizea Hormaetxea leioaztarrrak lortu zuen garaipena, beste behin ere; hala, leioaztar onenaren saria ere bereganatu zuen. Emakumezkoen gazte-mailan, saria Zuriñe Sánchezentzat izan zen. Gizonezkoetan, oster, sari nagusia Diego Durán barakaldarrentzat izan zen. Gaizka Sánchez

Egitaraua

Irailak 17, domeka

08:00 Txapelketa gastronomikoa: bakailaoa bizkaitar erara prestatzeko lur-sailen zozketa.

10:00 Txistularien kalejira.

14:30 Txapelketa gastronomikoa: bakailao-kazolak aurkezteko epea itxiko dute.

16:00 Igel-toka eta kuartan-txapelketa.

18:00 Erromeria Alaiki taldeagaz.

Ondoren, sari-banaketa.

22:00 Jaien amaiera.

leioaztarrrak jaso zuen bertako dantzariarentzako saria. Azkenik, Josu Marcos leioaztarrrak lortu zuen multil gazterik onena izatea. Baina festak ez ziren aurreko domekan amaitu, eta domekan izango da ohiko erreplikapena, bakailao-txapelketagaz. ◀

Gaztelubideko udal-bulegoa lekuz aldatu dute, lanengatik

Gaztelubide Udal Bulegoa Pinueta-ko ludotekara mugitu du Leioako Udalak. Erakundeak jakinarazi duenez, horren arrazoia da udal-bulegoan hainbat berrikuntza egin behar dituztela, eraikina Herriarrentzako Arreta Zerbitzu integrala bihurtzeko.

Hori dela eta, «Jagolearen etxea» legez ezaguna den bulegoan eskaintzen zituzten udal-zerbitzuak 100 bat metrora dagoen Pinuetako ludotekan emango dituzte, Maiatzaren Bata kaleko 3 zenbakian, alegia. Lanak amaitzean, hilabete bi barru gutxi gorabehera, berriro zabalduko dute Gaztelubideko bulegoa. Bitartean, orain arteko harremanetarako bideak man-

tenduko dituzte. Mari Carmen Urbietta alkateak azaldu duenez, «Herriarrentzako Arreta Zerbitzuen bidez bilatzen dena da arreta eskaintzea, pertsonen arteko erakusmahai eta muga barik, harreman hurbilago batez...». Hala, udaletxean legez, Gaztelubiden egin ahal izango dira udal-sail denen kudeaketak, obrak amaitu ostean. Leihatilaz leihatila ibili beharrean, eta udaletxeraino igo barik, herriarrek bertan egin ahal izango dituzte espediente bati dagozkion izapideak. «Denbora aurreztuko du eta izapideak asko erraztuko ditu. Hori herriarrek eskertzen dute», adierazi du Urbietak. ◀

info+: saco2@leioa.net / 944 646 722

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



BETIKO IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduerak ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net



ikastolenelkartea

Itzaki Bitxitegia



Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3 94 430 23 45
Telletxe 1 94 460 27 41
Algorta

GetxoGas

GetxoGason Euskararekin bat!!

Getxo eta Berango artean
94 430 15 00



Branka

JANIRE
ENZUNZA LANDA
Filologoa eta irakaslea

Egunerokoan, atara deiogun etekina irailari

Akabau dira oporrak! Edo hasi dira oporrak! Edo oraindino oporretan! Irailean, batetik edo bestetik, sarri entzungo doguz esaldi horreek. Nire kasuan, lehenengoa esan behar dot, baina, halanda bere, ez dot betilun esango.

Umetan, abuztuaren azkenengo hamabostaldia ernegetan emoten neban, telebisinoan, postontzian, dendetan, eta abarretan *eskolara itzultzea* horrek itoten nindualako. Hori zala eta, iraila ez neban gozatzen, eta hile oso gogorra izaten zan.

Orain dala urte batzuetatik hona, ostera, iraila beste era batera biziten ikasi dot, oporren akabua eta egunerokoaren hasikerea martxa onean buztartzen ikasi dot. Batez bere, konturatu nazelako hile polita eta probetxugarria bere badala; eta, eguraldia lagun badago, baita urria bere!

Kontuan eduki irail eta urrian, oraindino, arrastiko eguzki-orduak (edo argi-orduak, eguna zelan datorren) nahikotxu aprobe txau geinkezala. Ganera, inguru ederra daukagu, beharretik kanpo bueltatxu osasungarria emoteko, aire freskoa hartzeko eta burua hutsituteko. Udan lagunak ezin egin izan doguzan topaketak bere adostu geinkez sasoi honetan; lasai bazkaldu edo afaldu terrazatxu batean, tertulia atsegina daukagula. Zemenditik aurrera etorriko da ordu-aldaketea, eta, horregaz batera, etxetik urteteko nagikeria.

Uda osteko jaiak bere ezin geinkez ahaztu: santakurtzeak mesedetakoak, sanmigelak, sanfaustoak, etab. Gorputza jantzan ipinteko aukerarik badago han edo hemen! Dana dala, lehena go edo beluago, onartu beharko dogu udea joango jakula, eta udagoienari aurre egin beharko deusagula. Ondo dator bizimodua apur bat ordenatea eta partikerak beteten hastea, esaera zaharrak dinoana egia borobila da eta: nahi bada jan, egin behar da lan! ◀

Sopela

Segurtasuna bermatugura dute Olabiden



Neurri horiekaz, Olabide Sopela eta Urduliz lotzen dituen errepideagaz elkartuko da.

Prozesu parte-hartzailean jasotako eskaerei erantzuten dieten neurri espezifikoak hartuko ditu Udalak.

Olabideko industrialdean bide-segurtasunari behin betiko bultzada eman gura dio Sopelako Udalak. Hala, Gobernu-taldeak hainbat ekintza garatuko ditu, «isurpen kutsatzaileak murrizteko eta oinezkoen, txirrindularien eta automobilen arteko bizikidetza hobetzeko asmoz».

Gainera, bide berri horregaz, «Leioa-Getxo eta Plentzia-Gorliz-Sopela gunetatik» errepiderako sarrera hobetuko dela jakinarazi dute udal-arduradunek. Modu beran, industrialdean kokatuko diren enpresentzat sarrera «hobezina» eskaintzen lagunduko duela adierazi dute, eta trafikofluxua hobetuko duela laster zabalduko den Berangoko merkatalgunera joateko; eta, Sopela eta Urduliz lotzen dituen errepideagaz elkartuko da, ospitalera sarrera eskainiz, besteak beste. ◀

info+: hiruka.eus/sopela

Kurtzio kultur etxeko ikastaroetan izena eman daiteke

Hasiko den ikasturtean Kurtzio kultur etxean egingo diren ikastaroetan izena emateko epea zabaldu du Udalak, hilaren 22ra arte. Hala, adin eta gustu guztiei zuzendutako ikastaroen eskaintza zabala izango dute aukeran herritarrek, barbarako antzerkia, umeentzako pintura, tangoa, argazkigintza eta irudien edizioa. Izen-emate ordenaren arabera esleituko dituzte lekuak, betiere Sopelan errolatuak lehenetsiz. Ikasleei telefonoz jakinaraziko diete taldea sortu den eta leku bat egokitu zaien ala ez. ◀

info+: www.sopelaudala.org

Txakurrentzako parkea egin dute Sipiri kalean

Agility EDU-CAN zirkuitua duen Txakurrentzako parkea egin du Udalak, Sipiri kalean, udaletxearen atzeko aldean. Proiektu aitzindaria da Uribe Kostan, bertoko arduradunek azpimarratu dutenez. Erakunde publikoak 16.300 euro inguru bideratu ditu horretara, eta udalerrian errolatutako 2.936 txakurren beharrei erantzuna ematea du helburu. ◀

Berango

Askotariko ikastaroak eskainiko dituzte ikasturte honetan

Udako oporren ostean, denboraldi berriko udal-ikastaroen eskaintza martxan ipiniko dute Berangon. 18 urtetik gorakoei zuzendutako ikastaroei dagokienez, altzarien berriztapena eta tai jia egongo dira aukeran, goizez eta arrastiz eskainiko dituzte. Gainera, areto-dantza eta eskulanean bina maila eskainiko dituzte; euskal dantzak, ingelesa, zur-lanketa, margolaritza eta euskara ere aukeran daude. Ostera, umeentzako ikastaroak askotarikoak izango dira: eskalada, ingelesa eta dantza modernoaren lau maila, adinaren arabera (2012-2013, 2008-2011, 2004-2007 eta 2000-2001); txikienentzako aukera eta margolaritzako ikastaroak ingelesez izango dira. Ikastaroak Santa Anako kultur etxean egingo dira. Berangon errolatutako pertsonentzako ikastaroen prezioak 20 euro eta 120 euro bitartekoak dira. Errolatuta ez daudenentzat, berriz, ordaindu beharreko zenbatekoa handiagoa da. ◀

info+: hiruka.eus/berango

Herri-galdeketa egiteko sinadurak batu ditu GEDk

Berangon ere erabakitze esku-bidearen aldeko herri-galdeketa egingo dute, datorren azaroaren 5ean. Hala jakinarazi du bertoko Gure Esku Dago taldeak, auzokideen 718 sinadura batu ostean, hau da, udalerriaren % 12,7. Modu horretan, lau kontsulta egingo dituzte Uribe Kostan

azaroaren 5ean: Berangon, Erandion, Getxon eta Leioan. Euskal Herri subiranoa gura ote duten galdetuko zaie Berangoko auzokideei egun horretan, Gure Esku Dagok antolatutako kanpainaren barruan. Horretarako, botoa emateko hainbat gune egongo direla aurreikusi dute antolatzaileek. ◀



Urduliz

Bigarrenaren txanda!

Irailaren 7an hasi ziren jaiak; hala ere, aste-akabu honetan ere gozatzeko aukera egongo da herrian.

Hasiera euritsua izan arren, jaien bigarren aste-akabuari gogotsu helduko diote urduliztarrek. Barikuan, hilaren 15ean, neska-mutilentzako eskubaloipartidak egingo dituzte Elortza eskolako patioan, 16:00etatik aurrera. Ordu bi beranduago, IX. Skate Xpression saioa egongo da Goietas skate-pistan; euria izanez gero, beste egun batean egingo dute. 19:30ean pala-partidak jokatuko dira Iparralde kiroldegian; eta gauean, Outsiders eta Porco Bravo taldeen kontzertuek alaituko dute jaia, 23:00etatik aurrera. Zapatuan, berri, herri-martxagaz hasiko dute eguna, 09:00etatik aurrera. Ostean, kalejira eta umeentza-



Egitarau osoa: hiruka.eus/urduliz

ko parkea egongo dira; Iratxo Gorria dantza-taldearen emanaldia 12:30ean, izango da, udaletxeko plazan. Eguerdian, Gure Esku Dagok antolatutako herri-bazkaria egingo dute Iparralde kiroldegian, eta, arrastian, askotariko

kirol-saioak egingo dituzte, berbarako auto-slaloma, esku-pilotako partidak eta kick-boxingeko erakustaldia. Gauean, Diana Lagarto, Madchicken eta Triki taldeen kontzertuak egongo dira, txosnagunean. ◀

Gorliz

Kultur eta kirol-ikastaroetan izena emateko epea, zabalik

Hastear dago 2017-2018 ikasturtea eta, urtero legez, askotariko ikastaroak antolatu ditu Gorlizko Udalak. Kultur eta kirol-tailer horietan parte hartu gura dutenek aldezturik izena eman beharko dute, hilaren 15a baino lehen. Horretarako, inskripzio orria betetzea beharrezkoa da; kultur etxean (Krutzeta kalea, 5) egin daiteke, edo faxez bidal daiteke (946 774 005), edo posta elektronikoz. Ikastaroak nagusien eta umeen edo gazteen artean banatuta egongo dira. Epearen barruan izena ematen dutenen kopurua eskaintzen duten leku-kopurua

baino handiagoa bada, lehentasuna izango dute Gorlizko erroldatutakoek. Gorliz, Lemoizen edo Plentzian erroldatuta daudenek, gainera, deskontua izango dute ikastaroen prezioan. Kobrantzak hiruhilekoan behin izango dira, helbideratutako ordainagiri baten bidez. Familia ugariak % 15eko deskontua izango dute; gazte-txartela dutenek eta 65 urtetik gorako gorliztarrek, % 10ekoa; Gorlizko erroldatutako 15 eta 25 urte bitartekoek zein lanbakoek, % 50ekoa; ez gaitasuneko pentsiodunek, % 10ekoa. ◀

harremanetarako: gorliz@gorliz.net

Lemoiz

Hilaren 27ra arte izena eman daiteke kultur ikastaroetan

Lemoizko Kultur Etxeak ikastaro eskaintza zabala egingo du ikasturte honetan. Denera, 14 aukera daude auzotarren gozamenetarako. Aurten, gainera, euskarazkoen eskaintza areagotu egin dute: ikastaro denetatik lau euskaraz egin ahal izango dira, honako hauek: umeentzako zumba, balleta, zirkua (daborduko, hasita) eta gimnasia abdominal hipopresiboa. Gazte-erazkoak dira kontuleku, jostakuntza, dantza kreatiboa, pintura, nagusientzako dantza, batukada, sabel-dantza, tai jia, zumba eta pilates. Izen-ematea hilaren 27ra arte zabalik egongo da. ◀



Tradizioa

JOKIN DE PEDRO
Idazlea

Tradizio berriak eta tradizio zaharrak

Badu hitz honek, zorioneko tradizioak, hainbat eta hainbat soslai. Zer datorkigu gogora entzuten dugunean: «Hori oooso tradizionala da»? Batzuk botako ditut: kontserbadorea, jatorra, karka, herri-zalea, aldagaitza, kalimotxoari fidela... Hitz guztiek, bereziki barra-barra erabiltzen direnek, badute adiera bat baino gehiago, jakina, baina ematen du tradizio hitzaren esanahiak ere tradizioa galdu duela...

Gauza bat dago argi: tradizioak, gehienetan, ibilbide laburra duela: zerbait tradizionala dela esaten dugunean ez dela gehienetan gure sustraian aski barneratzen. Horrela, betikotzat dauzkagun txapela, Olentzero, Zeledon, trikitia... berri samarrak dira —batzuk atzo goizekoak, Mari Jaia edo lehen aipatu Zeledon bezala—, behintzat *in situ* hain antzinate bizi izan den Euskal Herria bezalako herri bantentzat.

Tradizioaren antzintasuna bezain alderdi konplexua da haren purutasuna ere, haren kutsagabetasuna. Horretan, halaber, behin eta berri ikusten dugu euskal ohitura guztien erroan izaten dela edo beste etnia batzuekin konpartituriko zerbait (txapela, pilota, sagardoaren kultura...) edota kanpotik ekarritako tradizio bat, geroago gurean errota eta bereziki indartu dena (eskusoinua, jota, fandango...). Arlo batzuetan, kantuan eta dantzan bezala, bietarikoak izan daitezke.

Ondorioz, zahartasuna zein purutasuna oso erlatiboak dira eta ez lizkigukete gure egiten ditugun tradizioak bazterrarazi behar.

Euskal Herriak tradizionaltasunaren ospea badu ere, sakon sakonean gauza bakarra litzateke geure-geurea, inondik ekarri bakoa. Hemen idatzitakoa ulertzeko gai denak badaki zein den altxor hori. ◀

ARTOLOZAGA
Tailerrak ANAIK
Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Sopelan
Gatzarrine z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.talleresartolozaga.com

BOSCH
Service

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!

Car Service

OSABIDE Hartz-Klinika
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina. ALGORTA - 94 430 76 96

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK

Eraikuntza zerbitzu integralak

Illeta, 1. 48991 ALGORTA
94 430 52 43 - 607 952 977
regaraizar@gmail.com · www.garaizar.biz

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

Algortako etorbidea, 78 ALGORTA - 94 491 27 34

Gura izanez gero, etxera erango dizugu egunkaria!

Street Orchestra Ukulélé Klubaren kideek kaleko umore-bandatzat dute euren taldea. © SOUK



ERANDIO

Musikalean jaialdiari eutsi dio Erandiok

Jatorri eta herrialde oso ezberdinetatik helduko diren musika-bandak entzun ahal izango dira irailaren 15etik 17ra, Altzagan eta Astrabuduan. Izan ere, Leioako, Basauriko eta Sestaoko udalek ez bezala, Musikalean jaialdiari eustea erabaki zuten Erandioko agintariek, 2013an; jaialdiak 17 urte beteko ditu aurten. Hala ere, orduz geroztik, hamabi beharrean, sei tal-

dek baino ez dute jotzen Altzagan eta Astrabuduan. Bariku arrastian (08:00etan), zapatu osoan (12:00etan, 13:30ean, 19:00etan eta 20:30ean) eta domeka eguerdian (12:30ean) kaleak musikaz beteko dituzte bandek, auzo bietan aldi berean. Erandiora hurre-ratuko diren taldeak ondoko hauek dira: Gots de Tuba (Herrialde Kata-lanak), Crazy Jazzers (Bilbo, Euskal

Herria), Vide Grenier Brass Band (Pirinio Atlantikoak, Frantzia), The Broken Brothers (Iruña, Euskal Herria), Sevillage People (Sevilla, Espainia), Street Orchestra Ukulélé Klub (Frantzia). Batzuk New Orleanseko kaleetako taldeetan oinarritzen dira; beste batzuek, reggae-a, ska eta rocka jotzen dituzte. Umorea da talde horien guztien ezaugarrietako bat. ▶

ERANDIO

Egun batez artzain izateko aukera, Lutxana Kultur Elkarteagaz

Egun batez artzain izateko aukera eskaintzen du Abadiñoko Alluitz Natura enpresak. Hala, bertara joateko txangoa antolatatu du Lutxanako Kultur Elkarteak, urriaren 1ean, domekan. Partehartu gura dutenak 09:30ean irtengo dira, Lutxanatik; 19:00etan egongo dira bueltan. Izena emateko epea irailaren 15era arte zabalik egongo da; 12 urtetik gorakoek 15 euro ordaindu beharko dituzte; 3 eta 12 urte artekoek, 8 euro; eta 3 urtetik beherako umetxoek doan izango dute. Bestalde, bakoitzak bere bazkaria eroan beharko du. ◀

izen-ematea: 6 69 335 162 (18:00-21:00)



ANTZERKIA

IRAILAK 15, BARIKUA

Antxo eta Pantxa pailazoak

20:00 |Lutxana auzoa |Erandio
Lutxanako jaiak. Umeentzat. Doan.

IRAILAK 16, ZAPATUA

Pirates ipuin-kontaketa

11:00 |Algortako kultur etxea |Getxo

GETXO

Rustyc Music Fest, Galeako zalditegian

Getxoko La Galea Klub Hipikoan, Rustyc Music Fest jaialdiagaz gozatzeko aukera izango dute folk-doinuen zaleek, zapatu hone-tan, irailaren 16an; 15 taldek joko dute. Ateak 11:00etan zabalduko dituzte; izan ere, familei begirako jaialdia dela adierazi dute antolatzaileek. Hori horrela, kontzertuez gainera, jatekoen saltokiak, azokatxoa, grabazio-estudioa, animazioa, puzgarriak eta zezen mekanikoa egongo dira. Sarrerak 7 euroan salduko dituzte helduen-tzat; umeentzat, doan. ◀

info+•: www.rustycfest.com



Pop. Herri-partaidetza. Etorbizuna hemen da

Torrene Aretoa (Algorta) |Getxo

Getxophoto nazioarteko argazki-jaialdia. Talde-erakusketa. Sarrera, doan. Informazio gehiago: www.getxophoto.com

GASTRONOMIA

IRAILAK 16, ZAPATUA

Getxo eta Mundaka Auzoetako

hiruka

Uribe Kostako astekaria



Gehigarri
berezia

2017ko
irailaren 14tik
30era arte

Hurrengo orrietan eskualdeko hainbat akademia,
hizkuntza-eskola eta aisialdiko eskaintza zabala duzu;
euskaltegiak, trebakuntza-ikastaroak...

Aurten, zuk zer egingo duzu?

*Hasi ikasturtea
aisialditik
onura lortuz*

aeek

euskara praktikoa



% 100 AFEKTIBOA

EUSKARA IKASTAROAK · CURSOS DE EUSKERA

Uribe Kostako AEK

Euskara eskolak · Clases de euskera
Ordutegi zabalak. A1-A2-B1-B2-C1-C2 · Todos los horarios y niveles: A1-A2-B1-B2-C1-C2
Autoikaskuntza, on-line ikastaroak · Autoaprendizaje, cursos on-line
Eskaintza bereziak · Cursos específicos
AISA, dendariak, guraso taldeak...

Matrikula zabalik iraila osoan · Matricula abierta todo septiembre

Izen ematea · Apuntarse en:

Leioa · 944 64 60 63 · lamia@aeek.eus
Getxo · 944 30 47 34 · lauaxeta@aeek.eus
Plentzia · 946 77 36 07 · jentilbaso@aeek.eus
Gorliz · 946 77 36 46 · jentilbaso@aeek.eus

<http://www.aek.eus/blogak/uribekosta> · www.facebook.eus/uribekostako.aek

DIRU-LAGUNTZAK / BECAS

Udal guztietan

Aim High Languages hizkuntz eskola



Helbidea:
Aita Gotzon, 34
Urduliz

Telefona:
946 029 575

E-maila:
aimhighlanguages
@gmail.com

Webgunea:
www.
aimhighlanguages
.com

Mugak gaindituz Hizkuntzak ikasteko aukera

Aim High Languages hizkuntz heziketako zentroa Urdulizen dago eta hiru urtetik aurrerako umeei, gazteei, nagusiei eta enpresei begirako eskaintza du.

Aurten zergatik ez? Urteak pasa eta beti aitzakiaren bat hizkuntzak ikasteko? Hobe berandu, inoiz ez baino!

Aim High Languages zentroa Urdulizen dago, eta adituak dira hizkuntz formakuntzan. Aurten ingelesa, frantsesa eta euskara talde txikietan ikasteko aukera eskaintzen dute. Nahi izanez gero, banakako klaseak ere badituzte, ume, nerabe zein helduentzat.

Bertoko lan-taldearen helburu nagusia txikiei hizkuntza era dinamikoan irakastea da, gehienbat jokoen bitartez eta ia ohartu gabe; argi diotenez, «dibertitzea da gure goiburua!»

Nerabeen eta helduen artean hizkuntzarekiko irrika sustatzea da euren xede nagusi. Konfiantza eza lantzeko

aukera eskaintzen dute, mintzamena eguneroko egoeretan oinarrituz. Hala-ber, azterketa ofizialak prestatzeko taldeak ere aukeran egongo dira.

Izena emateko epea maiatzetik zabalik izaten dute: «zure lekua gordetzeko gurekin harremanetan jarri. Denborari probetxua atera egiozu, azken lekua zuretzat izan daiteke!».

Zer eskaintzen da:

- Hiru urtetatik aurrerako ume, gazte eta nagusientzako ikastaroak.
- Azterketa ofizialen prestakuntza (HEO).
- Hiru hilabeteko ikastaro trinkoak, goizez.
- «One To One» klaseak.
- Enpresentzako ikastaroak.

Querido Tango dantza-eskola



Helbidea:
Mendiondo auzoa, 45
Urduliz

Telefona:
633 346 456

E-maila:
escueladebaile
queridotango.
@gmail.com

Webgunea:
EscuelaDeBaile
QueridoTango.
wordpress.com

Tangoa eta... Sentimenduak dantzan

Querido Tango eskola pasa den urtetik zabalik dago Urdulizen, eta bertan Tango Argentinarra eta beste hainbat dantza-jardura eskaintzen dituzte.

Querido Tango proiektua sortu zuten Borjak Alkalde eta Christinak Gomez 2016an. Euren eskolan Tango Argentinarra irakasten dute; diotenez, «sentimendu, konexio eta besarkada den dantza da, den-dena du; probatuz gero, ziu-rrenik katigatuta lotuko zara».

Christinak eta Borjak eskolak ematea maite dute, tangoaren edertasuna helaraztea euren ikasleei, eurek beste goza dezaten dantza honetaz.

Eskolan beste dantza mota batzuk ere irakasten dituzte, «Urduliz inguruan ez dagoelako dantza-jardueren eskaintza handirik», hori dela eta euren eskolan hurrengo jardura hauek ere egin daitezke: zumba, pilates, ariketa hipopresiboak, Karibeko Errit-

moak, dantza garaikidea, capoeira, se-villanak, eta abar. Gainera, eskaintza zabaltzeko asmoa dute, «beti ere irakasle onak bilatuz».

Dantzak jardura eta osasuna hobetzen ditu; «alde psikologikoa zein fisiologikoa lantzen ditu (geure burua ezagutzea, barru eta kanpo)», diote Querido Tangokoek, «eta edonork egin dezake, txikienek edo nagusienek».

Argi dute: «Ez zaitez etxean lotu... Anima zaitez, harremanetan ipini gu-gaz eta esaguzu zein jardura egin gura duzun; zatoz eta probatu, zure lehenengo eskola doan izango duzu eta! Gura duzun jardura ez badugu, eskaintzeko ahalegina egingo dugu; zure zain gaude!».

School Of Languages

Bulego ordutegia:

- Astelehenetik ostegunera 9.00 - 13.00
- Astelehen eta asteazkenetan 16.30 - 19.30

Aita Gotzon kalea, 34 • Urduliz
946 029 575 • 634 410 826
aimhighlanguages@gmail.com
www.aimhighlanguages.com

Borja Alkalde eta Christina Gomez

Etorn gu ezagutzera eta zure lehenengo eskola DOAN

Ven a conocernos y prueba tu primera clase GRATIS

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK!
C- Mendiondo auzoa 45
Urduliz
EscuelaDeBaileQueridoTango.wordpress.com

Tangoa
Zumba
Pilates
Ariketa hipopresiboak
Capoeira
Dantza garaikidea
Sevillanak
Karibeko erritmoak

f t g

Soinu Musika-eskola



Helbidea:

Telletxe, 34
Algorta - 48993

Telefonoak:

944 607 955
688 630 146

Webgunea:

soinumusikaeskola.com

Musika denontzat Zure musika-eskola, Algortan

Soinu Musika Eskolak 29 urteko eskarmentua dauka musikaz gozarazten. Zazpi gelatan, musikarekiko grina transmititzen dute, gura den instrumentuan.

Algortatik Galeara joateko bidean, Borobia plazaren aurretik eskumara eginez gero, «Soinu Musika Eskola» marcatzen duen karteltxoak ikusiko dugu. Horkoa leku magikoa da, argiz eta bibrazio onez betea. Seguru asko, eskola kudeatzen duten pertsona biak sutsuak, ausartak, baikorrak eta gogotsuak direlako, musika-ezagutza irakasteko eta zabaltzeko bada.

Soinu Musika Eskola 1988an zabaldu eta homologatu zuten; horrela lortu zuten ikasleek epaimahai arrotz baten aurrean azterketa egiteko trantze latza pasatu behar ez izatea. Zentroko arduradunek diotenez, «urte batzuk geroago konturatu ginen jendeak musikara hurbiltzeko zerabilen modua

aldatu egin dela. Gaur egun, musikaz gozatzea bilatzen da», azaldu dute, «ikasteko sufritu barik». Ikasleek «gogoko duten kanta ezagunen bat jotzeko musika-tresna» gura dute.

Halere, aitortzen dutenez, «gaur egungo musika, aurretik izan ziren maisu handiei zor diegu. Horregatik, Chopin, Bach, Beethoven edo Bartók bezalako egileen obrak lantzeari ez diogu inoiz utziko; The Beatles, The Rolling Stones edo gaur egungo egileen lanez gozatzeagaz batera». Soinu eskolaren ezaugarri nagusiak konfiantza eta gertutasuna dira: «ikasleek, umeek, baita helduek ere, eguneroko bizitzan izan ditzaketen egoera ezberdinak kontuan hartzen ditugu. Ikasle bakoitza berezia da guretzat». ◀

musika eskola
Eusko Jaurlaritzak baimendua

Telletxe Kalea 34 · 48993 ALGORTA
944 607 955 · 688 630 146
soinu_me@yahoo.es · soinumusikaeskola.com

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA

CURSO 2017-18 IKASTURTEA

MAILA GUZTIAK: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2

ESKANTZA ETA ORDUTEGI ZABALA

AMPLIA OFERTA DE CURSOS Y NIVELES

Grupos diarios

OHIKO TALDEAK

Cursillos intensivos

IKASTARO TRINKOAK

MINTZA-PRAKTIKA

TAILERRAK ETA MODULU TXIKIAK

Talleres y módulos reducidos

Sistema mixto

JARDUN BIKOAK

Auto-aprendizaje

AUTO-IKASKUNTZA

ESKOLAZ KANPO EKINTZA OSAGARRIAK

Actividades extra-escolares

AURREMATRIKULA IRAILAREN 26RA ARTE

Prematricula hasta el 26 de septiembre

LOPE DE VEGA, 12 - 48930 (Romo)
Tfnoa: 94 464 62 99
Emaila: euskaltegi@getxo.eus
www.getxo.eus/eu/euskaltegi

Bizkaiko Urtxintxa Eskola



Helbidea:
Zabalbide, 26
48006 - Bilbo

Telefona:
944 320 445

E-maila:
urtxintxa@
urtxintxaeskola.
eus

Webgunea:
www.
urtxintxaeskola.
eus

Hamaika ikastaro

Astialdi hezitzailea, helmuga

Bizkaiko Urtxintxa Eskolan 30 urte baino gehiago daroatzagu aisialdia balioetan janzten. Bide horretan, kalitatezko trebakuntza eskaintzen dugu garapen tresnatzat.

Bizkaiko Urtxintxa Eskolan ikasturte berrirako ikastaroak antolatu ditugu 2017-2018 ikasturtearen atea zabaltzarekin batera. 30 urte baino gehiago daramatzagu lan honetan eta, aurten ere, bide beretik gatoz. Feminismoan, Haurren Parte Hartzean, Aniztasun Funtzionalean, Kulturartekotasunean, Euskaran, Aisialdiko Begirale eta Zuzendari lanetan... trebatzeko aukera eskaintzen dugu.

Ikastaro luzeak zein laburrak eskaintzen ditugu Getxon, Bilbon, Gasteizen, Donostian eta beste hainbat herritan. Ikastaroetako batzuk eskaintzen urteak daramatzagu, edukiak oso finkatuak eta eguneratuak ditugu. Horren adibide dira feminismoa-

rekin lotutako ikastaroak, Begirale zein Zuzendari ikastaroak edo Aniztasun Funtzionala eta Inklusioa ikastaroak. Beste ikastaro batzuek izandako oihartzuna lekuko, aurten ere eskainiko ditugu, hala nola Haurren Parte Hartzea, Aniztasun Funtzionala eta Sexualitatea edo Kontsumo Arduratsua ikastaroak.

Horiez gainera, hainbat ikastaro labur ere baditugu aukeran, zeinu hizkuntzarekin, feminismoarekin edo euskararekin lotura dutenak.

Ezin aipatu gabe utzi, metodologia parte-hartzailea, hausnartzailea eta kritikoa erabiliz egiten dugula gure trebakuntza. Izan ere, hizlari arituak, koordinatzaile konprometituak eta ikasle aktiboak ditugu altxor. ◀

2017-2018 ikastaroak

Matrikula zaitez!
Irailaren 4tik 29ra!
matrikulazioa@urtxintxaeskola.eus

Aisialdiko begiralea • Astialdiko zuzendaria • Jendarte kultur dinamizatzailea • Eraldaketarako pedagogia eta jardura feministak hezkuntzan: hezkidetzak • Haurren parte-hartzean murgiltzen • Aniztasun Funtzionala aisialdian *** eta gehiagor

astialdiko begirale ikastaroa

Begirale ikastaroa:

2017ko urritik 2018ko maiatzera

Asteburuetan, gabonetan eta aste santuko oporretan.

Prezioa: 450 euro.

Matrikulazio data:

Irailaren 18tik 29ra Bizarra Lepoan euskara elkartearen bulegoan.

Ordutegia: 10:00etatik 14:00etara eta astearte + ostegunetan 16:30etik 18:00etara.

Ekarri beharrekoa:

NAN fotokopia, argazki bat eta abonarea bulegora ekarri behar dira.

Kontu korrante zenbakia:

ES54 2095 0233 10 9102257479

Helbidea:

Martikoena kalea 16, 2. solairua - 4. bulegoa
48992 Algorta
94.491.03.87 | info@bizarralepoan.eus.

Info+: www.bizarralepoan.eus



Erandioko Udal Euskaltegia

MATRIKULA ZABALIK

Izena emateko epea: Irailaren 4tik 22ra

Euskalduntze eta alfabetatzea
A1, A2, B1, B2 eta C1 agiriak
Hizkuntza Eskakizunak
Ordutegi guztiak
Euskara Zerbitzuaren bekak eta diru-laguntzak
Ekitaldiak euskaraz
BOGA, Internet bidezko irakaskuntza
Xede berezietako taldeentzako eskolak

Desanexio kalea, 4 - 3.a (Bekoa ikastetxea)
944 676 075 - euskaltegia@erandio.eus
www.erandiokoeuskarazerbitzua.com
www.udaleuskaltegiak.eus






Euskal dantzak

Adin guztietako taldeak, DOAN - GRATUITO!
5 urteik gorakoentzat, jubilatuentzat ere bai - desde los 5 años hasta jubilados

Musika Eskola

Trikitixa, Panderoa, Alboka, Txistua, Txalaparta, Atabala
Egunak eta orduak norberaren nahari egokituak - Horarios flexibles

MATRIKULA ZABALIK!

Gurekin parte hartu gura baduzu...
• 688.676.188 - 695.750.649
• itxartu.itxartu@gmail.com
• www.itxartu.com
• Itxartu Taldea Kultur Elkartea





Sopelako Udal Euskaltegia

2017-2018 ikasturtea
A1•A2•B1•B2•C1

Euskalduntze
Maila guztiak: A1•A2•B1•B2•C1
Guraso Taldeak
Hasibarraik
Gurasoak lagunduz
Bizkaiera ikastaroa
Mintzapraktika
Ostalari, dendari eta
kirol entrenatzaileentzako
ikastaro bereziak

IRAILEAN
EUSKARA MAILAK
EGIAZTATZEKO IKASTAROK
Cursos para la acreditación de perfiles lingüísticos
2017-09-04 / 2017-09-28
ORDUTEGIA: 9:00-12:00 / 16:00-19:00
Matrikula epea: 2017-07-05

2017-2018
IKASTURTEA
Matrikula Epea:
2017/09/04
2017/09/28

ENRIKE URRUTIKOETXEA, 10
48600 SOPELA
Tel: 946 763 154
euskaltegia@sopelana.com

Sopelako Udal Euskaltegiak
jai zoriontsuak opa dizkizue!



PAUSOZ PAUSO EUSKALDUN

MASTITXU EUSKALTEGIA

Aurrematrikula/Prematricula
Irailaren 1etik 22ra del 1 al 22 de setiembre

HABE TITULO OFIZIALAK EUSKALTEGIAN DENTAN LORTZEKO AUKERA
HABE POSIBILIDAD DE OBTENER LOS TITULOS EN EL EUSKALTEGI

Euskara ikasteko diru-laguntzak
Subvenciones para el aprendizaje de euskara

Gurasoentzako taldeak
Grupos para padres-madres

MASTITXU EUSKALTEGIA
ESKUTIK HELDUTA
PAUSOZ PAUSO
DE LA MANO HACIA EL EUSKERA

Merkatari-entzako taldeak
Grupos para comerciantes

MASTITXU EUSKALTEGIA
ERANTZU IOZU
EUSKARAZ
DÍSELO EN EUSKERA

GAZTEAK

ZURETZAT ERE BAI
MASTITXU EUSKALTEGIA

ARZO-GELAK
EL EUSKERA EN TU BARRIO

MASTITXU EUSKALTEGIA
ETKETIK GERTU
A UN PASO DE TU CASA








SARTU GURE WEB BERRIAN

www.cianoplan.es
902 103 763

kartelgintza

inprimategia

kopisteria



Familia plan berria: **zure alabaren ala semearen betaurrekoak, doan!**

Ikusmenaren osasunean aitzindari den General Opticak beren-beregi familiei begirako plan bat eskaintzen du.

Zure semeak ala alabak begiak ixten ditu telebista ikusten dagoenean etxean edo arbelari begiratzean eskolan? Begietan azkura duela edo sarri igurztzen dituela antzeman diozu, ordenagailuaren aurrean edo etxeko lanak egiten tarte bat daroanean? Liburua lartxo hurbiltzen du irakurtzeko?

Horiek denak sintomak izan daitezke, zure alabak ala semeak ikusmen-arazoren izan dezakeela adieraz dezakete. Etxeko txikien ikusmena

sarri aztertzea beharrezkoa den prebentziozko neurri bat da, begiak zaintzeko eta ikaskuntzan zailtasunik ez edukitzeko; jakina baita ikusmen kaskarrak eragiten duela hiru eskola-porrotetatik bat. Ez geroko utzi!

Ikasturte hasiera honetan batez ere, gastuek nabarmen egin ohi dute gora (liburuak, eskolako materiala, arropa, eta abarrak); batzuetan, horiek eraginda, gure seme-alabak optikariarengana eramatea atzerarazten dugu. Hori dela eta, egitekoa erraz-

tuz, General Opticak Familientzako Plana sortu du. Plana beren-beregi umeak dituzten familiei begirakoa da; zureak erostean, zure alabaren ala semearen betaurrekoak doan lortuko dituzu.

Eskatu hitzordua hurbilen duzuen General Opticaren zentro batean, eta ikusmen-azterketa egingo dizuegu, konpromiso barik. Horretan, gabeziaren bat antzemanen gero, konponbide erraz bat eskainiko dizuegu: familiako kide nagusi batek

betaurreko batzuk erosiz gero, doan izango dira adin gabekoarenak: ume-txoa, umea edo nerabea izan, bere betaurrekoak doakoak izango dira, eta forma eta kolore askotarikoen artean aukeratu ahal izango dituzte.

Horrez gainera, zuen lasaitasuna helburu, zure betaurrekoek bi urteko apurtze-aseguru osoa izango dute; eta txikienei dagokienez, euren betaurrekoen kristalak aldatu ahal izateko bermea, lehenengo urtean graduazioa aldatuko balitz.



* Ikusmenaren osasunean aitzindari den General Opticak beren-beregi familiei begirako plan bat eskaintzen du. Plana beren-beregi umeak dituzten familiei begirakoa da; zureak erostean, zure alabaren ala semearen betaurrekoak doan lortuko dituzu. Eskatu hitzordua hurbilen duzuen General Opticaren zentro batean, eta ikusmen-azterketa egingo dizuegu, konpromiso barik. Horretan, gabeziaren bat antzemanen gero, konponbide erraz bat eskainiko dizuegu: familiako kide nagusi batek betaurreko batzuk erosiz gero, doan izango dira adin gabekoarenak: ume-txoa, umea edo nerabea izan, bere betaurrekoak doakoak izango dira, eta forma eta kolore askotarikoen artean aukeratu ahal izango dituzte. Horrez gainera, zuen lasaitasuna helburu, zure betaurrekoek bi urteko apurtze-aseguru osoa izango dute; eta txikienei dagokienez, euren betaurrekoen kristalak aldatu ahal izateko bermea, lehenengo urtean graduazioa aldatuko balitz.

Zure seme edo alabaren

Betaurrekoak doan



General Optica

Telletxe kalea, 7 • GETXO - Kale Nagusia, 10 • AREETA
gozatu plan honetaz Bilboko gure edozein zentroan

edo aurkitu gertuen duzun zentroa www.generaloptica.es helbidean

HAMILTON Play-School

Ikastolak

Enpresak

ENGLISH SATURDAY Play-School

hamilton

IDIOMAS

MATRIKULA ZABALIK!


SOPELAN, Dr. Landa 6.
LARRABASTERRAN, Iberre 9.

946 763 012 - info@hamiltonidiomas.com

TRANSIZIOAK TRANSICIONES

www.getxophoto.com

www.getxophoto.com

GETXOPHOTO
NAZIOARTEKO IRUDI JAIALDIA
FESTIVAL INTERNACIONAL
DE IMAGEN

30.08 — 01.10 — 2017









CURSO
2017
2018
IKASTURTEA

**MATRIKULA
ZABALIK**

J.A. AGIRRE EUSKALTEGIA

Heldu euskarari!



TODOS LOS NIVELES MAÑANA Y TARDE

MAILA GUZTIAK, GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ

CURSOS DE PREPARACIÓN DE EXÁMENES OFICIALES
LOS SÁBADOS

AZTERKETA OFIZIALAK PRESTATZEKO IKASTAROAK
LARUNBATETAN

Bulego ordutegia:

Horario de oficina:

09:30 - 13:30

17:00 - 20:00

PARA ALUMNOS DE 6 A 16 AÑOS

6-16 URTEKO GAZTEENTZAT

3 HORAS SEMANALES • ASTEAN 3 ORDU
17:30-19:00

lunes y miércoles • martes y jueves
astelehen eta asteazken • astearte eta ostegun

Refuerzo de la asignatura,
aprendizaje lúdico,
tiempo para preparar exámenes
y hacer los deberes.

Ikasgaia sendotzeko,
ikasketa jostagarria,
etxeko lanak egiteko
eta azterketak prestatzeko.

Algortako etorbidea, 104
48991 · Algorta (Getxo)

944 606 671

www.jagirre.net
j.a.agirre@euskalnet.net



ACADEMIA DE DIBUJO Y PINTURA DESDE 1991
1991-TIK MARRAZKETA ETA MARGOLARITZA AKADEMIA

94 491 18 87 • 666 92 19 19

www.arteskola.net • info@arteskola.net

ARTESKOLA ARTE AKADEMIA

Andres Cortina Kalea, 28 - etxabea. 48993 Algorta



Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Kurtzion

Eguen honetan, irailaren 14an, *Tipi-ta-pa Korrika* ikuskizuna eskainiko dute Pirritx, Porrotx eta Marimotots paila-zoek; saio bi egongo dira: 16:30ean eta 18:30ean. Sarrera 5 euroan daude sal-mentan, Kurtzio kultur etxean. ◀

Literatura-ibilbideak, Pinillaren omenez

Verdes valles, colinas rojas eleberrian agertzen diren lekuak ezagutzeko au-ker a egongo da, irailaren 16an eta 17an; Algortako San Nikolas plazatik abiatu-ko dira, 10:30ean. ◀

izen-ematea: 944 910 800

Kontuleku egitasmoa martxan ipini dute

Familia giroan, euskaraz irakurtzen ika-si ahal izango dute 3 eta 7 urte arteko umeek, eta euren gurasoek; kontalari batek irakurriko ditu istorioak... gainon-tzekoek adi entzun beharko dituzte. ◀

info+: 688 654 770



Baserritarrez edo arrantzalez janzteko eskatu dute antolatzaileek. © ALBE

Bertsoak, dantzak eta kantak batuz

Hitzaren Dantza jaialdiaren hirugarren edizioa egingo du Algortako Bertsolari Eskolak, Getxo udalerriko beste hain-bat elkarteren laguntzaz. Besteak beste, herri-bazkaria egongo da, 15:00etan, San Nikolas plazan; beranduenez, gaur, eguena, da izena emateko azkenengo eguna. ◀

Noiz: Irailak 17, domeka.
Ordua: 11:00etatik aurrera.
Non: Algortako kaleak eta plazak.
Informazio gehiago: www.albe.eus



Kids&Us hizkuntza eskolagaz. Danontzat. Ingelesez. Sarrera, doan.

A cal y canto

12:00 | Ontziola plaza | Plentzia
Arte kale antzerki-jaialdiaren barruan. Trapu Zaharra taldeagaz. Gaztelaniaz. Doan.

Femmes

13:30 | Erribera kalea | Plentzia
Arte kale antzerki-jaialdiaren barruan. Hortzmuga taldeagaz. Berba barik. Doan.

Sardina freskue!

19:00 | Portua | Plentzia
Arte kale antzerki-jaialdiaren barruan. Eidabe taldeagaz. Euskaraz. Doan.

Walkman

20:00 | Elizako plaza | Plentzia
Arte kale antzerki-jaialdiaren barruan. Ganso & Cía taldeagaz. Berba barik. Doan.

Epa!

22:00 | Ontziola plaza | Plentzia
Arte kale antzerki-jaialdiaren barruan. Demode Quartet taldeagaz. Euskaraz. Doan.

DANTZA

IRAILAK 17, DOMEKA

Areto-dantzen erakustaldia

17:00 | Josu Murueta plaza | Erandio
Dance GM dantza-eskolagaz. Doan.

ERAKUSKETAK

IRAILAREN 15 ERA ARTE

Plencia, la ría y sus silencios

Goñi Portal kultur etxea | Plentzia
Jose Ramón Domínguez en argazkiak. Doan.

IRAILARN 18 TIK 29 RA

Ines Artolazaga Gondraren olio-pinturak

Goñi Portal kultur etxea | Plentzia
Sarrera, doan.

IRAILAREN 29 RA ARTE

Europeando. Europa munduan. Getxo European

Algortako kultur etxea | Getxo
E-Civis elkarteak antolatuta. Sarrera, doan.

URRIAREN 1 ERA ARTE

Elkarrizketa berriak

Torrene Aretoa (Algorta) | Getxo
Getxophoto. Talde-erakusketa. Sarrera, doan.
Informazio gehiago: www.getxophoto.com

Getxoko Munduko Arrozak

09:00 | San Nikolas eta Bihotz Alai | Getxo
Umeentzako jolasak, kalejira, musika, arroz-txapelketa eta bazkaria egongo dira. Izen-ematea taldeka izango da: taldeko pertsona bakoitzak 1 euro. Informazio gehiago: getxokomundukoarrozak@gmail.com

IRAILAK 17, DOMEKA

Bizkaitar erako bakailao-txapelketa

08:00 | Ondiz auzoa | Leioa
Ondizko jaiak. Goizean, lursailen zozketa egingo dute. Lapikoel dagokienez, 14:30ean aurkeztu beharko dituzte parte-hartzaileek. Sariak 18:00etan banatuko dituzte. Horrez gainera, txistularien kalejira (10:00), igel-tokaren eta kuartan jolasaren lehiaketak (18:00) egongo dira. Amaitzeko, Alaiki erromeria-taldeak joko du, 18:00etan.

JOLASAK

IRAILAK 16, ZAPATUA

Olgetan Solas

12:00 | Lutzana auzoa | Erandio
Lutzanako jat-egitarauaren barruan. Familiarteko kirol-jolasak. Parte-hartzea, libre.

KIROLAK

IRAILAK 16, ZAPATUA

Duatloi Txikia

10:00 | Udaletxeko plaza | Sopela
Hirubi Triatloi Taldeak antolatuta. 1 eta 14 urte arteko umeentzat. Doako izen-ematea: triatlonsopelana.org (irailaren 14ra arte).

IRAILAK 17, DOMEKA

Txirrindularitza-eskolen topaketa

10:30 | Kurtzio-Artadi ingurua | Sopela
Ugeraga Txirrindularitza Taldeak antolatuta.

MUSIKA

IRAILAK 16, ZAPATUA

Kantu kolore

18:30 | Lutzana auzoa | Erandio
Lutzanako jaiak. Umeentzako dantzaldia. Doan.

Ilargi beltza

22:30 | Lutzana auzoa | Erandio
Lutzanako jat-egitarauaren barruan. Dantzaldia.

IRAILAK 17, DOMEKA

Xaibor

18:00 | Lutzana auzoa | Erandio
Lutzanako jat-egitarauaren barruan. Doan.



Portu zaharra 35. 48991 ALGORTA
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com
94 468 20 33

«Demografiari dagokionez, oso demokratikoak diren ikusleak dauzka Getxophotok»

Monica Allende bilbotarra da 2017ko Getxophoto jaialdiko komisarioa; lan hori egingo du beste bi urtez. Londreseko Unibertsitatean zientzia politikoak ikasi zituen Allendek; han bizi da eta han lan egiten du. Editore grafikoa, komisarioa eta kultur ekoizlea da. Getxophotori dagokionez, globalizazioaren ondorioak aukeratu ditu berbabidetzat aurton.



TESTUA: **KEPA UGARTE MARTIARENA** / ARGAZKIA: **HODEI TORRES**

Ezustea hartu zenuen Getxophoto jaialdiko komisarioa izatea proposatu zizutenean?

Getxophotoren aurreko edizio batean, Itxialdian parte hartu nuen; beste batean, berriz, ikastaroa eman nuen. Beraz, jaialdia antolatzen duen Begihandi elkartearen kideekin elkarlanean jardun izan dut lehena ere. Gainera, ondo ezagutzen ditut Getxophoton komisario izandako Christian Caujolle-ren ibilbide artistikoa eta jaialdiaren beraren kalitatea. Proposamena egin zidatenean, pribilegiotzat hartu nuen; izan ere, ideiak eta proiektuak askatasun osoz garatzeko bitartekoak izatea desiragarria da edozein sortzailerentzat; eta hori eskaintzen dizu Getxophoto jaialdiak. Besteak beste, nire buruhausteetako bat zen gure proiektuen ikusleekiko komunikazio zuzena zelari gauzatu; horretan sakontzeko aukera izan dut.

Londresetik Bilbora itzultzeko aukera eman dizu Getxophoto jaialdiak, ezta?

Bai. Alor pertsonalaren aldetik, une berezian egin zidaten Getxophotoko komisario izateko proposamena: hain justu, 30 urte ziren Bilbotik Londresera joan nintzenetik. Horrek ez du esan nahi urte horietan guztietan Euskal Herrira etorri ez naizenik; senideei eta lagunei bisita egin diet, noizean behin. Baina, alor profesionalan, proiektu txiki batzuk baino ez ditut egin berton etxean. Nire ogibideari dagokionez, sorterrira itzuli naizela ematen du. Bilbon jaio eta hazi arren, Britainia Handian lan egin izan dut urte hauek guztietan; eta han hazi naiz alor profesionalari

dagokionez. Esan daiteke, orain dela hiru hamarkada atzean utzi nuen lekua berriro ezagutzen nabilela, Getxophotoren eta argazkilaritzaren bitartez.

Zeintzuk dira argazkilaritza-jaialdi bateko komisarioaren betebeharrak?

Lan zehatz batzuk izan ohi ditu argazkilaritza-jaialdi bateko komisarioak. Hala ere, Getxophoton, horiek eta beste batzuk ere egiten jardun dut; elkarlanean ibili gara denok, batak besteari laguntzen eta, teorian, ez zegozkigun beste lan batzuk egiten. Atsegin

“Hazkunde globala, gehiegizko kontsumismoa eta klima-aldaketa dira aurten ikus daitezkeen lanen ardatzak”

handiz hartu ditut betebeharrak horiek guztiak. Komisario baten betebeharrak dagokienez, bera izaten da jaialdiko gaia mahaigaineratzen duena. Behin ideia hori oinarritzat hartuta, horrekin bat egin dezaketen lanak topatzen ahalegintzen da lantaldeko kide hori; lanak ezin dira bakarka eta bereizita hartu; lanak elkarri lotzea, harilkatzea beharrezkoa da, gai nagusia kontuan hartuz, zentzua izan dezaten.

Trantsizioak da Getxophotoren aurtengo goiburua, eta datozen hiru urteetako ere bai.

Ohi den legez, komisario izateko aukeratzen dutenak hiru urtean lan egiten du Getxophoton; eta gaia ere berbera izaten da hiru urte horietan. Hala ere, horrek ez du esan nahi gaiak ikuspuntu bera duenik urte batetik bestera. Aurtengo Getxophoton ikusi ahal izango diren lanen ardatzak dira klima-aldaketaren inpaktua zein hazkunde global oso bizkorren eta gehiegizko kontsumismoaren eraginak. Trilogia moduan aurkeztu ditugu eta kezka komun bati helduz, hau da, etorkizun hurbilaren kezkari. 2017ko *Trantsizioak* askotariko diziplinetako narratiben alde egiten duten mundu osoko irudi-kontatzaileen lana erakutsiko du. Bestalde, egoera edo baldintza batetik bestera aldatzeko prozesu edo aldi moduan ulertuz gero, *Trantsizioak* gaiak hizketaldi askoren hasiera izan nahi du, gizarte- eta partaidetza-hizketaldi zabalago baten barruan, guztiok garelako kanpoan gelditu ezin garen kontakizun bateko protagonistak.

Eta hurrengo urte bietan zein ikuspuntutik helduko diozu *Trantsizioak* gaiari?

Aurten, gaia modu orokor batean jorratzea interesgarria iruditzen zitzaidan; globalizazioaren ondoko garaiaz hitz egiten dut. Kontuak hala, existentzia globalizatu batek eragindako ondorioak kontuan izan ditut aurten. Getxophotoren hurrengo edizioari dagokionez, gizarte-kontratuaren birplanteaketa tribua izango dugu berbabide. Azkenik, 2019an, Homo Sa-



Jarduerak

Photowalk

Irailak 22, barikua

19:00 Metro Bilbaoren San Mameseko geltokian, Luis Briñas kaleko sarreraren kanpoko aldean. Prezioa: 5 euro. Izena ematea beharrezkoa da.

Gaueko ibilbideak

Irailak 29, barikua

20:30 Informazio-puntuan, Algortako Amezti kaleko 4. zenbakian. Euskaraz. Prezioa: 3 euro. Ezinbestekoa da esku-argia eroatea. Izena ematea beharrezkoa da.

Ibili, bisita gidatuak

Irailak 30 eta urriak 1

11:30 Informazio-puntuan, Algortako Amezti kaleko 4. zenbakian. Euskaraz. Prezioa: 3 euro. Izena ematea beharrezkoa da.

Edontzi-azpikoen ibilbidea

Urriaren 1era arte

Algorta: Jolas Aurre, Maggie's Farm, Sustrai, Alkartetxea, Bodeguilla Caza, Baster, Etxetu Berria eta The Piper's Irish Pub.

Bilbo: Ambigú, Bihotz, Galipó, Dando La Brasa (Getxo eta Bilbo), Peso Neto, Marzana, El Laterío eta Sarean.

Eskatu edalontzi-azpikoa edariagaz batera.

Pop Herri partaidetza erakusketa

Urriaren 1era arte

Algortako kultur etxean. Sarrera, doan.

info+: www.getxophoto.com

piensaren eta bere izatearen mutazio berezien miaketa egingo dugu, eraldaketa azeleratuak bizi ditugun aldi honetan; hau da, norbanakoa aztertuko dugu.

Aurtengo jaialdian, salatzeko helburuz ere erabili gura duzue argazkilaritza, ezta?

Nire ustez, historiak eta istorioak kontatzeko balio duen tresna da argazkilaritza. Egia da, argazkiak baliagarriak izan daitezkeela aurretik bururatu ez zaizkizun gaiak azalerazteko ere; baita egoera bat salatzeko ere, dokumentalista zein den kontuan hartuta. Hala ere, ni beti ahalegintzen naiz gaitegi oso zabala mahaigaineratzen; horrela hausnarketa egiteko aukera ematen dudalako. Nik nire pentsamoldea badaukat, baina ez dut beste inorena bideratzeko erabiltzen; hausnarketa sustatzen saiatzen naiz. Aberasgarriagoa da, inoren pentsamoldea alde batera edo bestera bideratzea baino.

Argazkiez gainera, ikus-entzunezko lanak ere ikus daitezke Getxophoto jaialdiaren aurtengo edizioan.

Argazkilaritzaren barruan, beti jorratu nahi izan ditudan arloak hiru dira, nagusiki. Batetik, berrikuntza daukagu: kontatzeko modu berriak gogoko ditut. Getxophotoren aurtengo egitarauan ikus dezakezue-nez, *Elkarriaketa berriak* izenburua ipini diogu Algortako Torre Aretoan ikus daitekeen erakusketari; adibide argiagorik! Bestalde, kontatzeko modu horiek arlo digitalean sor daitezkeen arren, ez dute teknologian eta baliabide digitaletan oinarritu beha-

rrik. Esaterako, abiapuntua interpretazioan daukan Nobuko Tannawa-ren lan bat dago, horretan eguneroko egoerak birsortzen ditu. Egoera horiek berregitea da gakoa; ez begien aurrean daukazun hori irudikatzea bakarrik, are gehiago ere bada.

Zein da jorratu duzuen bigarren arloa?

Esperimentazioaren barruan, aurten lehentasuna eman diegu argitalpenak, hau da, objektu ukigarriak, oinarritzat dauzkaten ikastaroei. Batetik, nire ustez, munduan dagoen artelanik berezienetako bat

“ **Kolektiboen edo norbanakoen arteko hizketaldien hasiera izan nahi du aurtengo jaialdiak, egoera aldatzeko** ”

da eskuz egindako argazki-liburua. Hori dela eta, Yumi Goto ekarri dugu aurtengo Getxophotora; bera da mota horretako obrak eskuz egiten dituen artistarik esanguratsuenetariko bat, mundu-mailan. OStera, espektroaren beste aldean, The Photocopy Club etorri zaigu Getxora. Horiek fanzinea erabiltzen dute istorioak edo historiak kontatzeko bitartekotzat; eta, horrez gainera, horretarako, zuri-beltzeko fotoko-

piagailua erabiltzen dute. Ostean, orrien zatiak ebaiki egiten dituzte, eta, gero, itsatsi egiten dituzte. Izugarri polita da!

Arte-areto pribatuakaz elkarlanean diharduzue?

Elkarlana da jorratu gura nuen beste arloetako bat; horren barruan, Bilboko arte-areto pribatu batzuekin *Bilbao connection* ekitaldia sortu dugu; horiek ere bisita ditzakete Getxophotoren zaleek. Zelanbait, Getxoren eta Bilboren arteko elkarriaketa bat bilatu nahi izan dugu; gune publikoen eta komertzialen arteko hizketaldia, alegia.

Getxophoto jaialdiaren zer nabarmenduko zenuke?

Jaialdi honen gaineko kontuetatik gehien harritu nauena ondoko hau izan da: demografiari dagokionez, oso demokratikoak diren ikusleak dauka Getxophotok. Batetik, udalerriko bertoko ikusle fidelak dauka jaialdiak, herritarrek sortutako ekimena delako, gehienbat. Hemengo ikusleek alde hori baliosten dute, asko. Bestetik, «bisualki heziak» dau denengana ere heltzen dira jarduerak. Azkenik, nazioarte-mailan ere isla dauka festibalak. Horren adibide da Getxophoto osorik bisita daitekeela errealitate birtualeko betaurreko batzuk erabiliz, munduko edozein lekutatik, gaur egun. Jaialdiaren betiko ideia batean oinarritzen da: herri-mailatik, nazioartera. Geografikoki, ez dago mugarik. Getxophotok ez du bereizketarik egiten; edozeinek parte har dezake jardueretan; ez «bisualki heziak» direnek bakarrik. ◀



Besteak beste, Eidabe konpainiaren *Sardina freskue!* ikuskizunaz gozatu ahal izango da zapatuan. © EIDABE



17:00etan; antolatzaileek azaldu dutenez, umeek ikuskizunean parte hartzeko aukera izango dute, itsasoko antzinako euskal kantak abestuz. Ondoren, 20:00etan, Gorka Ganso eta Cecilia Paganinik berba gabeko *Walkman* umore-antzezkiak eskainiko dute, Elizako plazan. Azkenik, Demode Quartet taldeak musikaz alaitutako *Epa!* antzeztuko du Ontziola plazan, 22:00etatik aurrera. Saio denak kalean izango dira eta sarrera doakoa izango da.

Plentzia Kulturaz egitasmoaren antolatzaileek azaldu dutenez, herria kulturaz «jantzi nahi duen» ekimena da hori, «jendea kulturaz blai busti eta gure herrian kulturaz hitz egitea nahi duena ere bai». Modu berean, sortzaileei laguntza eskaini gura die egitasmoak, euren artea auzokideei erakusteko aukera eskainiz. «Gure herrian kulturak duen garrantzia bultzatzeko marka da Plentzia Kulturaz», aldarrikatu dute. Udalak sortutako ekimena da Plentzia Kulturaz, eta jarduera artistikoak egutegiko «lehenengo lerroan» ipintzeko helburuz ekingo diote bideari, herritarren inplikazioa bilatuz. Daborduko, Lanbro Beltza topaketa, Mikrofilm Short Festibala eta AgorriJazz jaialdia egin dituzte hiribilduan. ◀

Antzerkia, kalean!

Kaleko antzerkien Artekale jaialdia egingo dute Plentzian zapatuan, hilaren 16an. Egun osoko egitaraua prestatu dute antolatzaileek.

Artekale izango da Plentzia Kulturaz egitasmoren hurrengo hitzordua. Hala, zapatuan, hilaren 16an, askotariko kale-antzerkiez gozatu ahal izango da hiribilduko zenbait lekutan. Lehenengo saioa eguerdian izango da, 12:00etan, Ontziola plazan; Trapu Zaharra konpainiak *A cal y canto* ikus-

kizuna eskainiko du. Ostean, *Femmes* aldarrikapen-ikuskizunaren txanda izango da; neoaktibista sozial bilakatu diren atso batzuk dira protagonistak. Saioaz gozatu gura dutenek Erribera kalera hurbildu beharko dute 13:30ean. Arrastian, Eidabe konpainiak *Sardina freskue!* ikuskizuna taularatu-ko du, haurrentzat, Portuan bertan,

Hitza emanda



Itzulera

*Karibe, Auñamendi
Thailandia, Ankara
mentalki Instagramen
menpe bizi gara;
itzuleran, goibelen,
auto-iladara.
Iraila irauteko
hilabetea da.*



**FREDI
PAIA
RUIZ**
Bertsolari algortarra

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertsu bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



Sopela Kosta Festeko izen-emateak, zabalik

Irailaren 21etik 24ra bitartean egingo da aurten Sopela Kosta Fest jaialdia. Surfa, natura eta musika ardatz izango ditu laugarren edizioak ere, eta hamaika ekitaldi egongo dira aukeran, askotarikoak. Daborduko, doako hogeitaz jarduera ingurutan izena emateko epea zabalik dago. Ekintza horien guztien bitartez, gura dutenek bertatik bertara ezagutu ahal izango dute surfaren kultura; naturazaleek ere naturagaz eta itsaslabarrakaz zerikusia duten ekintzetan parte hartu ahal izango dute, besteak beste.

Sopelako bost surf-eskola arduratuko dira kirol horretan hasi gura dutenei doako ikastaroak emateaz; horietan parte hartzeko, 12 urte beteta izatea eta aldeztetik izena ematea beharrezkoak dira. Gainera, Peña Txuri Surf Eskolak eta Euskal Herriko Surf Federazioak egokitutako surf ikastaroak emango dizkiete behar bereziak dituzten gazteei. Modu berean, adituak di-

ren udalerriko zenbait kirolarik kayak-surfaren modalitatea erakutsiko diete gura dutenei, Barinatxeko hondartzan. Horrez gainera, Parapente Bizkaia eta Airetik Parapente elkarteek heganez egiteko aukera eskainiko dute, udalerriko itsaslabarrak airetik erakutsiz.

Doako jarduera horietakoren batean parte hartu gura dutenek aldeztetik izena eman beharko dute. Horretarako, Sopela Kosta Fest jaialdiaren webgunera jotzea beharrezkoa da; doako ekintza guztien zerrenda ere bertan ikusi ahal izango da.

Sopela Kosta Fest irailaren 21ean hasiko da, Surf Business Meeting jardunaldiagaz. Horretan, ekintzaileentzat surfaren industriari dituen baliabideak eta aukerak aztertuko dira. Industria horretan lan bila dabilatzenei, erakundeek, ekintzaileei eta prestakuntza edo eskarmentua duten profesionalen begirako ekimena izango da. ◀

info+: www.sopelakostafest.com

Getxoko Munduko Arrozak jaialdia egingo dute Algortan, lehenengo aldiz

Getxoko hainbat eragilek kulturen arteko jaia egingo dute zapatuan: Getxoko Munduko Arrozak, irailaren 16an. Getxoko pertsonen, taldeen eta eragile sozialen arteko interrelazioa landu gura dute horren bidez, beste herrialdeetatik heldu diren lagunak kontuan hartuta, batez ere. Jaia egunean umeentzako jolasak, musika emanaldiak, aldarrikapen-kalejira eta herri-bazkaria egongo dira, besteak beste. Ekitaldiak Algortako San Nikolas eta Biotz Alai plazetan egingo dituzte.

Getxon lehenengoz aldiz antolatuko dute aurten jarduera hori; baina, hamar urte baino gehiagoko ibilbidea du hurbileko zenbait herri eta auzotan. 2004an jaio zen Bilbo Zaharrean, San Frantziskon eta Zabala auzoetan; askotarikotasuna eta giro ona dira jai horren arrakasta, eta edonorentzako eta denentzako lekua da. Jarrera bortitz, xenofobo, sexista edo homofoborik ez dituzte onartuko bertan. ◀

Sopela Kosta Fest

Irailak 21-24
Musika + Surfa + Natura

2017

Delorean
eta **Willis Drummond**
jaialdiko buru

Musika eta film laburrak

Irailak 21, eguena

Surfeko film laburren III. lehiaketaren sari-banaketa egingo dute, eta filmak emango dituzte udaletxeko plazan.

Irailak 22, barikua

Iparraldeko **Willis Drummond** (90eko punka), Kataluniako **Los Tiki Phantoms** (surf-rocka), **Señores** bilbotarrak (rocka) eta **Rubia**.

Irailak 23, zapatua

Zarauzko **Delorean**, Xerezgo **Tomasito** (flamenko rocka), **Koban** donostiarrak (elektro-swinga), **Kokein** eibartarrak (rocka) eta **Optigan1 DJ**.

Doako jarduerak

Jaialdiak doako hainbat jarduera antolatuko ditu, horietan parte hartzeko leku-kopurua 450 ingurukoa da. Parte-hartzaileek bertatik bertara ezagutu ahal izango dute surfaren kultura, natura eta itsaslabarrak.

Herriko bost surf-eskola arduratuko dira doako hastapen-ikastaroak emateaz.

Peña Txuri Surf Eskolak eta **EHSFk**, gainera, egokitutako surf-ikastaroak emango dizkiete behar bereziak dituzten gazteei.

Kayak-surfeko ikastaroak ere egongo dira, doan. Gure hondartzetan, modalitate honetako munduko zenbait txapeldun ditugu; horietako batzuek irakatsiko dituzte itsas-kirol horren oinarriak Barinatxe hondartzan.

Parapente Bizkaia eta **Airetik Parapente** elkarteek hegan egiteko aukera eskainiko dute; gure itsaslabarrak beste ikuspegi batetik ezagutu ahal izango ditugu. Horrez gainera, Burdin Hesira txangoak, garagardoaren festa eta haurrentzako hamaika tailer egongo dira.

Surf Business Meeting

Sopela Kosta Fest irailaren 21ean hasiko da **Surf Business Meeting** jardunaldiarekin. Surfaren industria lan bila dabiltzanei, erakundeei, ekintzaileei eta prestakuntza edo eskarmentua duten profesionalei begirako ekimena izango da hori.

Parte hartuko dutela baieztatu duten erakundeen artean daude honako hauek: Aspom, Frantziako nazioarteko enplegu-agentzia, surfean eta irristatzeko kirolean berezitua; Ocean Living Lab egitasmoa aurkeztuko duen Euskadiko Gaia klusterra, itsas kirolean aditua den Europako lehenengo laborategia eta Eurosima, Europako Surfaren Industria Erakundea.



info+: www.sopelakostafest.com

Benfica hockey-taldea, Jolasetan

Munduko talderik garrantzitsuenak Jolasetan jokatu du aste-akabuan, klubak antolatutako nazioarteko patin-hockeyko txapelketan.

Zapatuan eta domekan jokatu da Jolasetako Nazioarteko Patin-hockey Txapelketa, Neguriko kirol-klubaren instalazioetan, irailaren 16an eta 17an. Elkartek iragarri duenez, txapelketaren laugarren edizio honetan parte hartuko duela baieztatu du Sport Lisboa e Benfica hockey-taldeak.

Talde portugaldarra nazioarteko patin-hockey talderik garrantzitsuenak da: 1916an sortua, Benficak Europako liga bi irabazi ditu azken bost denboraldietan. Gainera, Portugalgo 23 txapelketa eta 15 kopa ere lortu ditu. Nazioarteko

Patin-hockey Txapelketa da Jolasetako Patin-sailak antolatzen duen ekimenik garrantzitsuenak, urtero erabiltzen dute talde nagusia aurkezteko.

Lehenengo mailan

Hala, aurten, Jolaseta Espainiako Lehenengo Mailara bueltatuko denez, txapelketa hori gogor samarra izateko antolatu dute, hala denboraldi-aurreko prestaketatzat ondo baliatzeko. Urriaren 14an estreinatuko da Jolasetako lehenengo taldea, Kataluniako Vilanova i La Geltru herriko taldearen aurka. Jolasetakoek aitortu dute



Armada gorria faboritua da Neguriko txapelketa irabazteko. © SPORT LISBOA E BENFICA

eurena dela txapelketan lehiatuko diren lau taldeen arteko "ahulena". Izan ere, Benficaz gainera, Negurikoek Alcobendas eta Gradoko Asturhockey taldeak izango dituzte arerio. Talde madrildarra Espainiako Lehenengo Mailan dago, Jolaseta legez, eta talde biek elkar topatuko dute hirugarren jardunaldian. Negurikoek azaldu dutenez, Alcobendasekoek "igotzeko aukera argiak daukate". Asturiarrek, ostera, Espainiako maila nagusian jokatu dute, OK Ligan. Edozein kasuan, talde bi horiek ondo ezagutzen dituzte Jolasetako zaleek eta jokala-

riek. Asturiarrek orain dela urte bi lehiatu ziren Negurikoek aurka, Lehenengo Mailarako igotze-fasean; gainera, lehenengo urtean izan ezik, orain arteko Nazioarteko Patin-hockey Txapelketako edizio denetan hartu dute parte. Alcobendasek, berriz, orain dela urte bi jokatu eta irabazi zuen txapelketa hori.

Bestalde, madrildarrek gonbidapena bueltatu diote Jolasetari; irailaren 23an eta 24an Negurikoek Alcobendaseran bidaiatuko dute, klubaren hiruko sariketan parte hartzeko. Azken taldea Rivas Las Lagunas izango da. ◀

Getxoko Milian izen-ematea, zabalik

Zapatuan jokatu da Getxoko Miliaren XI. edizioa, datorren irailaren 23an. Atletismozaleek irailaren 19ra arteko epea daukate, inskripzioa betetzeko.

Lasterketan izen-ematea doakoa da eta hilaren 19ra arte bete ahal izango dute interesdunek, Internetez, eta Algortako Torrene kaleko Kantxa Kirol Moda dendan. Inskripzioa egitean, parte-hartzaileak ondoko hauek zehaztu beharko ditu: izen-abizenak, jaiotze-data, bizi-udalerrria, sexua eta kluba edo ikastetxearen izena eta maila. Elitekoen lasterketetan parte hartu



Parte-hartze handia izaten da Milian. © ITXARTU

gura dutenek, federatuen fitxa aurkeztu behar izango dute. Antolatzaileak harremanetan ipiniko dira eurakaz. ◀

izen-ematea: Itxartu.com

Sopelako Duatloi Txikia zapatuan egingo dute

Sopelako Duatloi Txikiaren sei-garren edizioa hurbil dago. Sopelako Hirubi triatlai-taldeak eta Sopelako Udalak antolatutako proba zapatuan egingo dute, hilaren 16an. Izena emateko epea, ostera, eguen honetan amaituko da, irailaren 14an. Inskripzioa Internetez bete daiteke; proba doakoa da. Ekimena Sopelako udaltxeko plazan hasi eta amaituko da, 10:00etatik aurrera. Sopelako Udalak gogorarazi duenez, "urtez urte, probak arrakasta itzela erdietsi du". Aurton, 350 atletismozalek parte hartu ahal izango dute, urtebete eta 14 urte



Proba 10:00etan hasiko da. © SOPELAKO UDALA

bitartekoek, zenbait mailatan banatuta. Adinaren arabera, distantziak ezberdinak izango dira. ◀

izen-ematea: Triatlonsopelana.org


hirukalagun

Hau da zure txokoa!

hiruka zaitez...
eta abantaila askoz goza egizu!

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Non da? lehiaketa



SARIA

Getxoko kultur etxeari esker, Getxo Folk jaialdiko sarrerak zozkatuko ditugu

Getxo Folk jaialdiko sarrera bikoitza lortu gura baduzu, irailaren 22a (barikua) baino lehenago, bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Iraileko saria
GetxoGasori esker, 3 auto-garbiketa programa



3 auto-garbiketa programa zozkatuko ditugu HIRUKAlagun eta bazkide guztien artean. Zozketan parte hartzeko, bidali irailaren 30a (zapatua) baino lehenago, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKAlagun?



Alboko QR kodea eskaneatuz (telefono mugikorraren bidez), edo bestela:

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna/
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

HIRUKA Koop.elk. Martikoena, 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikizitatea helarazteko. Bestelako erabilerek erabiltzailearen aurretiko baimen zehatza behar dute. Erabiltzaileak gura duenean datuok zuzentzeko edo kentzeko bere eskubideak bete ditzake helbide honetara idatziz: hiruka@hiruka.eus

Zerbitzuak

Sudokua

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

			2			5		
								3
8			9	4			2	
9	8		6			2	3	
				3				7
		7						8
				2		4		
4		6	7		1			8
7	1							

Soluzioa

2	9	6	7	8	5	3	1	4
8	5	3	1	6	2	9	7	4
1	2	4	9	7	3	8	6	5
6	8	9	2	5	7	4	3	1
2	7	1	6	3	8	5	9	2
5	3	2	2	1	9	7	8	6
9	2	2	3	7	6	1	5	8
3	6	8	5	2	1	2	7	9
7	1	5	8	9	2	6	2	3

+ Guardiako farmaziak, hilaren 14tik 20ra

Berango

EGUIA. Sabino Arana kalea, 20. 946 680 360. Astegunetan, 09:00-22:00.

IRUSTA. Angxane bidea, 1. 946 680 153. Eguenean, 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik barikuko 09:00ak arte.

Erandio

ARRUTIA. Obieta kalea, 15. ALTZAGA. 944 674 711. Astegunetan, 09:00-22:00.

GARCIA. José Luis Goioaga et., 25. ALTZAGA. 944 671 496. Zapatuan eta domekan, 09:00-22:00.

DÍAZ. Etxegorri kalea, 3. ASTRABUDUA. 944 170 291. Zapatuan, 09:00-14:00.

GASTEARENA. Meso, 24-26. ASTRABUDUA. 944 175 200. Zapatuan, 09:00-14:00.

TEIJELO. J. A. Agirre plaza, 8 bis. ERANDIOGOIKOA. 944 530 124. Zapatuan, 09:00-14:00.

Getxo

LOBO. Makaleta etorbidea, 43. AIBOA. 944 308 286. Eguenean, 09:00-22:00.

ALZOLA. Arene kalea, 4. ALGORTA. 944 306 570. Astegunetan, 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik hurrengo eguneko 09:00ak arte; zapatuan, 10:00-13:30 eta 22:00-09:00; eta domekako 22:00etatik asteleheneko 09:00ak arte.

ARISTEGUI. Juan Bautista Zabala, 1. ALGORTA. 944 911 798. Astegunetan, 09:00-22:00.

EZQUERRA. Ollarretxe, 27. ALGORTA. 944 303 328. Egutero, 09:00-22:00.

JIMÉNEZ. Illetas, 12. ALGORTA. 944 301 352. Egutero, 09:00-22:00.

LÓPEZ-LINARES. Kasune, 10. ALGORTA. 944 302 632. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

MORÓN. Bidezabal, 2. ALGORTA. 944 319 007. Astegunetan, 09:00-22:00.

SARRIA. Telletxe, 1. ALGORTA. 944 910 556. Astegunetan, 09:00-22:00.

ARRIOLA. Amaia, 29. AREETA. 944 805 328. Astegunetan, 09:00-22:00.

BAYANO. Ibaigane, 9. AREETA. 944 638 460. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

ELLACURIA. Andrés Larrazabal, 5. AREETA. 944 637 971. Astegunetan, 09:00-22:00.

PLATERO. Eduardo Coste, zk.g. AREETA. 944 630 635. Zapatuan, 09:00-22:00.

ANDRACA. Maidagan, 61. GETXO. 944 914 697. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

GALARZA. Aingeruaren etorbidea, 2. GETXO. 944 914 704. Astegunetan, 09:00-22:00.

MONASTERIO. Gorbeia Mendia, 1. ITZUBALTZETA. 944 630 865. Astegunetan eta domekan, 09:00-22:00.

NÚÑEZ. Ibaiondo, 9. ITZUBALTZETA. 944 631 809. Astegunetan, 09:00-22:00.

Gorliz

ABURTO. Itsasbide kalea, 5. 946 775 452. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

ROMERO. Itsasbide, 20. 946 128 941. Zapatuan, 09:00-13:30; eguaztenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Leioa

ANGULO. Kandelazubieta, 19. 944 645 185. Eguenean eta martitzenean, 09:00-22:00.

TIEMBLO. Sabino Arana kalea, 89. 944 803 191. Domekan eta eguaztenean, 09:00-22:00.

ORTEGA. Artaza kalea, 8. NEGURIGANE. 944 608 501. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

ONA. Maiatzaren Bata kalea, 4. PINUETA. 944 630 066. Astegunetan, 09:00-22:00.

SAN ANDRÉS. Larramendi plaza, 2. PINUETA. 946 572 295. Egutero, 09:00-22:00.

Lemoiz

GONZALEZ. Portubidea, 7. ARMINTZA. 946 879 341. Barikuan eta martitzenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Plentzia

ARAMBURU. Erribera, 20. 946 775 301. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-13:30 eta 22:00etatik asteleheneko 22:00ak arte.

Sopela

BENITO. Etxebarri, 19. 946 766 013. Zapatuan, 09:00-13:30.

DOLARA. Sabino Arana, 28. 946 129 547. Astegunetan, 09:00-22:00.

ITURBE. Iparragirre, 3. 946 764 768. Astegunetan, 09:00-22:00.

ERAZO. Loiola San Andrés, 50. LARRABASTERRA. 946 762 363. Astegunetan, 09:00-22:00.

ZUMÁRRAGA. Gatzarriñe, 6. LARRABASTERRA. 944 047 600. Astegunetan, 09:00-22:00; astelehenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Urduliz

PARAMO. Aita Gotzon, 9. 946 764 507. Astegunetan, 09:00-22:00.



Flashback

Algortako Ensenanza eskola, 1957-58 ikasturtea

Gaur egungo ikasleek oraintsu egin legez, orain dela 60 urte hasi zuten ikasturtea irudiko mutilek. Urte hartan, Pablo López de Uralde zen Ensenanza eskolako zuzendaria. Argazkietan agertzeko aukera handirik ez zegoen, eta, dirudienez, ikasleak zintzo ipini ziren ordenan, erdian irakaslea zutela. Orduko ikasle haiek erretiroa hartuko zuten honezkero; izan ostean behargin, itsasgizon, alkate, txistulari...

Ezkerretik eskumara, goiko lerroan: José Antonio Mendizabal, Imanol Garai, Ramón Landeta, J. Antonio Asla, Luis Etxebarria, Luis Bilbao Arrieta eta Luis Mari Gorozika.
Erdiko lerroan: Javi Gaztelurrutia, José Luis Quintana, Benigno Azkue, Iñaki Laradogoitia, Ignacio López de Uralde (irakaslea), Pedro Ugarte, Iñaki Galdona eta Iñaki Zubiaur.
Jesarrita: Tomás Etxebarria, Luis Mari Salazar, José Ignacio Azaldegi, José Luis Andrés, José Antonio Candina, Fernando Delicado eta Jesús Unda.
Lurrean jesarrita: Pedro Soroa eta Rafa Sangróniz.



© JOSE AZALDEGI GETXOKO UDAL LIBURUTEGIARI UTZITAKO ARGAZKIA



Uribitakora



TESTUA

Galder Bilbao Txapi

DOINUA

Zorionak Lide, Hodei musu 1

ARGAZKIA

Hodei Torres

Uribitakoran parte hartu gura duzu?

Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, ALBEko kideek jarritako bertso eta guzti: hiruka@hiruka.eus

Snorkeling

Irailan barne, Gabonak gertu begira atzera bizitza;
 «osasuntsuak izan behar gara»
 urtebarrin emanda hitza.
 Erre ta edan, irten ta ez sartu
 hori izan da gure fitxa,
 kirol ugari egin ditugu
 baita ere urpekaritza.

Uda garai arin joan da
 eta gu pozik jairik jai,
 laku urtegi aintzira itsaso
 ibai eta errekan blai.
 Naturarekin mimetizatuz
 tridentea ta arpoia zai;
 asko ez dugu arrantzatuko
 baina ondo pasatu bai.

Natura edo herrialdeekin
 han ta hemen atakean;
 Tosu, Azkorri, Katalanekin
 egon gaitezen bakean.
 Dirua eta demo(kk)trak
 zorigaiztoko atalean,
 ur sakonetan erantzunik ez;
 dena dago azalean.

Erakunde laguntzaileak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua